

Langile migratzaile guztien eta horien familiakoen eskubideak babesteari buruzko Nazioarteko Konbentzioa

Biltzar Orokorrak onartua, 1990eko abenduaren 18ko 45/158 ebazpenean

Atarikoak

Konbentzio honetako estatu alderdiek,

Kontuan hartuz, giza eskubideen esparruan Nazio Batuetako oinarrizko tresnek ezarritako printzipioak, bereziki, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean, Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen Itunean, Eskubide Zibil eta Politikoen Itunean, arraza-bereizkeria mota guztiak ezabatzeko Nazioarteko Konbentzioan, emakumearen aurkako bereizkeria-mota guztiak ezabatzeko Konbentzioan eta haurren eskubideei buruzko Konbentzioan,

Kontuan hartuz, halaber, Lanaren Nazioarteko Erakundearen esparruan egindako kasuan kasuko tresnen printzipioak eta arauak, bereziki, langile migratzaileei buruzko Hitzarmenean (97. zk.), abusuzko baldintzetan egindako migrazioei eta langile migratzaileen aukera- eta tratu-berdintasuna sustatzeari buruzko Hitzarmenean (143. zk.), langile migratzaileei buruzko Gomendioan (86. zk.), langile migratzaileei buruzko Gomendioan (151. zk.), derrigorreko edo nahitaezko lanari buruzko Hitzarmenean (29. zk.) eta derrigorreko lana abolitzeari buruzko Hitzarmenean (105. zk.),

Berretsiz, Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundearen irakaskuntza-esparruko bereizkerien aurka borrokatzeari buruzko Konbentzioko printzipioen garrantzia, Gogoraturik, torturaren eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarrien aurkako Konbentzioa, Nazio Batuen laugarren biltzarreko Adierazpena, delitua prebenitzeari eta delitugilea tratatzeari buruzkoa, legea betearazteko ardura duten funtzionarioentzako jokabide-kodea eta esklabotzari buruzko Konbentzioak,

Gogoraturik, Lanaren Nazioarteko Erakundearen helburuetako bat, bere Konstituzioan ezarritakoaren ildotik, langileen interesak defendatzea dela, langile horiek euren herrialdeetatik kanpo enplegatuta daudenean, eta kontuan hartuz erakunde horren jakitateak eta eskarmentua, langile migratzaileekin eta horien familiakoekin zerikusia duten gaietan,

Aitortuz, Nazio Batuen organo desberdinetan, bereziki Giza Eskubideen Batzordean eta Gizarte Garapeneko Batzordean, bai eta Nekazaritza eta Elikadurarako Nazio Batuen Erakundearen, Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundearen eta Osasunaren Mundu Erakundearen eta nazioarteko beste erakunde batzuetan langile migratzaileen eta horien familiakoen inguruan egindako lanaren garrantzia,

Aitortuz, halaber, estatu batzuek emandako aurrerapausoak, erregio-mailako edo bitariko akordioen bidez, langile migratzaileen eta horien familiakoen eskubideak

babesteko, bai eta esparru horretan bitariko nahiz alderdi anitzeko akordioen garrantzia eta erabilgarritasuna ere,

Ulerturik, migrazio-fenomenoaren garrantzia eta norainokoa, bere baitara milioika pertsona biltzeaz gain, eragin handia baitu nazioarte-mailako estatu askotan,

Jakitun izanik, langile migratzaileen fluxuek duten ondorioa estatuetan eta herrialde interesdunetan, eta gogoia izanik, estatuen jarrerak bateratzen lagun dezaketen arauak ezartzeko, horien bidez onar daitezkeen oinarrizko printzipioak, langile migratzaileen eta horien familiakoen tratamenduari dagokionez,

Kontuan harturik, langile migratzaileek eta horien familiakoek sarritan duten ahulezia-egoera, besteak beste, jatorrizko estatutik kanpo daudelako eta enplegurako estatuan egoteagatik arazoak izan ohi dituztelako,

Jakinik, langile migratzaileen eta horien familiakoen eskubideak toki guztietan ez direla behar bezala aitortu, eta, ondorenez, nazioarte-mailako babes egokia behar dutela,

Aintzat harturik, migrazioak sarritan arazo larriak sortzen dituela langile migratzaileen familiakoentzat, bai eta langileentzat eurentzat ere, batik bat, familia-dispersioa dela eta,

Aintzat harturik, migrazioak sortzen dituen giza arazoak harik eta larriagoak direla migrazio irregularraren kasuan, eta, ondorenez, jakinik neurri egokiak hartzea bultzatu behar dela, langile migratzaileen mugimendu eta iraganbide klandestinoak saihestu eta ezabatzeko, aldi berean ziurtatuz langile horien oinarrizko giza eskubideak babesten direla,

Kontuan harturik, atzeritar agirigabeak edo egoera irregularrean daudenak sarritan enplegatzen direla beste langile batzuk baino lan-baldintza kaltegarriagoetan, eta zenbait enpresentzat hori interesgarria dela, halako lan-eskua bila dezaten, lehia desleialaren bidez onurak lortzeko,

Kontuan harturik, halaber, egoera irregularrean dauden langile migratzaileak enplegatzeko joera murriztuko dela, baldin eta langile migratzaile guztien oinarrizko giza eskubideak modu zabalagoan aitortzen badira, eta, orobat, egoera erregularrean dauden langile migratzaileei eta horien familiakoei zenbait eskubide gehigarri aitortzen bazaie, horrek langile migratzaile guztiak bultzatuko dituela estatu interesdunetako lege eta prozedurak errespetatzera,

Jakinik, horren guztiorren ondorioz, langile migratzaileen eta horien familiakoen eskubideak nazioarte-mailan babestea lortu behar dela, oinarrizko arauak berretsiz eta ezarriz, aplikazio unibertsala izango duen konbentzio zabal batean,

Hurrengoa hitzartu dute:

I. ZATIA. Norainokoa eta definizioak

1. artikulua

1. Konbentzio hau aplikatuko zaie, bertan aurkakoa ezartzen denean izan ezik, langile migratzaile guztiei eta horien familiakoei, inolako bereizketarik gabe, sexua, arraza, larru-kolorea, hizkuntza, erlijioa edo pentsaera, politikako edo bestelako iritzia, jatorri nazionala, jatorri etnikoa edo gizarte-jatorria, naziotasuna, adina, ekonomia-egoera, ondarea, egoera zibila, jaiotza edo beste edozein ezaugarri dela bide.

2. Konbentzio hau aplikatuko da langile migratzaileen eta horien familiakoen migrazio-prozesu osoak iraun bitartean, horrek bere baitara biltzen duela migratorako prestatzea, migrazioa hastea, iraganbidea eta enplegurako estatuan izandako egonaldi guztia eta ordaindutako jarduerarako aldi guztia, bai eta jatorrizko estatura edo ohiko bizilekua zein estatutan izan eta estatu horretara itzultzea ere.

2. artikulua

Konbentzio honen ondoreetarako:

1. «Langile migratzaile» dira estatu batean ordaindutako jarduera egingo duten, egiten ari diren edo egin duten pertsona guztiak, estatu horretako nazionalak ez badira.

2.

a) «Mugaz gaindiko langile» dira langile migratzaile guztiak, horiek ohiko bizilekuari eusten diotenean alboko estatu batean, normalean horretara itzultzen direla egunero edo astean behin gutxienez;

b) «Sasoiko langile» dira langile migratzaile guztiak, lanaren izaerarengatik, horien lana denboraldi-baldintzen mende dagoenean, eta urteko sasoi batean bakarrik egiten denean;

c) «Marinelak» dira, termino horretara arrantzaleak ere biltzen direla, langile migratzaile guztiak, halakoak enplegatuta daudenean estatu batean erregistratutako itsasontzi batean, estatu horretako nazionalak izan gabe;

d) «Itsas egitura bateko langile» dira langile migratzaile guztiak, halakoak enplegatuta daudenean estatu baten jurisdikzioaren mende dagoen itsas egitura batean, estatu horretako nazionalak izan gabe;

e) «Langile ibiltariak» dira langile migratzaile guztiak, estatu batean ohiko bizilekua izan arren, beste estatu batera edo batzuetara bidaiatu behar dutenean, aldi laburretarako, euren jardunbidea dela eta;

f) «Proiektu bati lotutako langile» dira langile migratzaile guztiak, halakoak enplegurako estatu batean onartzen direnean, aldi zehaztu baterako, euren enplegatzaileek estatu horretan gauzatzen duten proiektu jakin batean lan egiteko bakarrik;

g) «Enplegu jakin bat duten langile» dira langile migratzaile guztiak, baldin eta:

i) Euren enplegatzaileak epe mugatu eta zehaztu baterako bidali baditu enplegurako estatu batera, zeregin edo eginkizun jakin bat gauzatzeko;

ii) Epe mugatu eta zehaztuan gauzatzen badituzte lanbide-jakitaeak, merkataritzako jakitaeak, jakitae teknikoak edo beste mota bateko jakitae oso espezializatuak behar dituzten lanak; edo

iii) Enplegurako estatuan euren enplegatzaileak hala eskatuta, aldi mugatu eta zehaztuan gauzatzen badute izaera iragankorreko edo laburreko lana;

eta enplegurako estatutik irten behar badute egonaldiko baimenaren epea agortu ondoren, edo lehenago, baldin eta aipatu zeregin edo eginkizun zehatza edo lana egiteari uzten badiote;

h) «Beregaineko langile» dira langile migratzaile guztiak, halakoek ordaindutako jarduera bat gauzatzen dutenean, lan-kontraturik izan gabe, eta euren bizimodua jarduera horren bidez ateratzen dutenean, normalean eurak bakarrik edo euren familiakoekin lan eginez, bai eta beste edozein langile migratzaile ere, baldin eta enplegurako estatuko legeria aplikagarriak edo bitariko nahiz alderdi anitzeko akordioek aitortzen badute langile hori beregainekoa dela.

3. artikulua

Konbentzio honen aplikazio-esparrutik at daude:

a) Nazioarteko erakunde eta antolakundeek bidali edo enplegatutako pertsonak eta estatu batek bere lurraldetik kanpora bidali edo enplegatutako pertsonak, eginkizun ofizialak gauzatzeko, baldin eta pertsona horien onarpena eta egoera juridikoa nazioarteko zuzenbide orokorrak edo nazioarteko akordio nahiz hitzarmen zehatzek arautu badituzte;

b) Estatu batek, edo horren izenean, bere lurraldetik kanpora bidali edo enplegatutako pertsonak, halakoek garapen-programetan eta lankidetzako beste programa batzuetan parte hartzen dutenean, baldin eta pertsona horien onarpena eta egoera juridikoa enplegurako estatuarekin egindako akordio batek arautu baditu, eta, akordio horrekin bat etorritz, pertsona horiek langile migratzailetzat jotzen ez badira;

c) Herrialde batean instalatzen diren pertsonak, euren jatorrizko estatutik kanpo, inbertitzaile gisa;

d) Errefuxiatuak eta apatridak, salbu eta kasuan kasuko estatu alderdiaren legeria nazionalean edo estatu horretan indarrean dauden nazioarteko tresnetan ezarri denean pertsona horiei ere konbentzio hau aplikatu behar zaiela;

e) Ikasleak eta doitasuna jasotzen duten pertsonak;

f) Marinelak eta itsas egituretako langileak, halakoek ez dutenean baimenik lortu, enplegurako estatuan bizitzeko eta ordaindutako jarduera bat gauzatzeko.

4. artikulua

Konbentzio honen ondoreetarako, «familiakoak» terminoak bere baitara biltzen ditu langile migratzaileekin ezkonduetako pertsonak edo langile horiekin harremanak dituzten pertsonak, aplikatu beharreko zuzenbidearekin bat etorriz, harreman horiek ezkontzaren antzeko ondoreak sortzen dituztenean, bai eta langile horien ardurapean dauden seme-alabak eta beste pertsona batzuk ere, azken horiek familiako modukotzat aitortu dituztenean legeria aplikagarriak edo kasuan kasuko estatuen artean aplikatu beharreko bitariko edo alderdi anitzeko akordioek.

5. artikulua

Konbentzio honen ondoreetarako, langile migratzaileak eta horien familiakoak:

- a) Agiridunak direla edo egoera erregularrean daudela ulertuko da, baldin eta enplegurako estatuan sartzeko, egoteko eta ordaindutako jarduera bat gauzatzeko baimena lortu badute, estatu horretako legeekin eta estatu hori nazioarteko zein akordioetako alderdi izan eta akordio horiekin bat etorriz;
- b) Agirigabeak direla edo egoera irregularrean daudela ulertuko da, baldin eta artikulua honetako a) idatz-zatian ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte.

6. artikulua

Konbentzio honen ondoreetarako:

- a) «Jatorrizko estatua» da kasuan kasuko pertsona zein estatuko nazionala izan eta estatu hori;
- b) «Enplegurako estatua» da langile migratzaileak ordaindutako jarduera gauzatu duen, gauzatzen ari den edo gauzatu duen estatua, kasuaren arabera;
- c) «Iraganbideko estatua» da interesdunak bidaiatuz igarotzen duen edozein estatu, enplegurako estatura joateko edo enplegurako estatutik jatorrizko estatura edo bere ohiko bizilekua dagoen estatura joateko.

II. ZATIA. Eskubide-bereizkeriarik eza

7. artikulua

Estatu alderdiek konpromisoa hartzen dute, giza eskubideei buruz nazioartean dauden tresnekin bat etorriz, euren lurraldeetan edo euren jurisdikzioaren mende dauden langile migratzaile guztiei eta horien familiakoei errespetatzeko eta ziurtatzeko konbentzio honetako eskubideak, inolako bereizketarik gabe, sexua, arraza, larru-kolorea, hizkuntza, erlijioa edo pentsaera, politikako edo bestelako iritzia, jatorri nazionala, jatorri etnikoa edo gizarte-jatorria, naziotasuna, adina, ekonomia-egoera, ondarea, egoera zibila, jaiotza edo beste edozein ezaugarri dela bide.

III. ZATIA. Langile migratzaile guztien eta horien familiakoen giza eskubideak

8. artikulua

1. Langile migratzaileak eta horien familiakoak askatasunez irten ahal izango dute edozein estatutik, baita euren jatorrizko estatutik ere. Eskubide horrek ez du inolako murrizketarik izango, salbu eta murrizketa horiek legeak ezartzen dituenen, beharrezkoak direnean segurtasun nazionala, ordena publikoa, osasun eta moral publikoa edo enparauen eskubide eta askatasunak babesteko, eta konbentzio honetan aitortutako beste eskubide batzuekin bateragarriak direnean.

2. Langile migratzaileek eta horien familiakoek eskubidea izango dute, edozein unetan jatorrizko estatura itzuli eta bertan egoteko.

9. artikulua

Legeak babestuko du langile migratzaileen eta horien familiakoen bizitza-eskubidea.

10. artikulua

Langile migratzaileek eta horien familiakoek ezin izango dute torturarik pairatu, ezta tratatu edo zigor krudel, anker edo apalesgarrikerik ere.

11. artikulua

1. Langile migratzaileek edo horien familiakoek ezin izango dute esklabotzarik jasan, ezta morrontzarik ere.

2. Langile migratzaileei eta horien familiakoei ez zaie galdutako derrigorreko edo nahitaezko lanik egitea.

3. Artikulu honetako 2. paragrafoa gorabehera, zenbait delituri begira, estatuetakoa legeriek espetxealdi-zigorrekin batera derrigorreko lanak onartzen dituztenean, estatuak lan horiek ezarri ahal izango dituzte, auzitegi eskudunak hori berori jasoz eman duen epaia betetzeko.

4. Artikulu honen ondoretarako, «derrigorreko edo nahitaezko lanak» esamoldera ez dira bilduko:

a) Artikulu honetako 3. paragrafoan jaso gabeko lan edo zerbitzuetarik edozein, normalean halakoak gauzatu behar dituela justizia arrunteko erabaki baten ondorioz atxilotuta dagoen pertsona batek edo gerogarrenean baldintzapeko askatasun-egoeran utzi den pertsona batek;

b) Bizitza edo erkidegoaren ongizatea mehatxatzen duen larrialdia edo hondamendia dagoenean zein zerbitzu galdatu eta zerbitzu horietarik edozein;

c) Betebehar zibilen artean dauden lan edo zerbitzuetarik edozein, halakoak kasuan kasuko estatuko herritarrei ere galdatzen zaizkienean.

12. artikulua

1. Langile migratzaileek eta horien familiakoek pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasunerako eskubidea izango dute. Eskubide horrek bere baitara bilduko du euren aukerako erlijioa edo sinesmena izan edo bereganatzea, bai eta euren erlijioa edo sinesmena banaka edo kolektiboan agertzeko askatasuna ere, jendaurrean nahiz modu pribatuan, kultu, erritu-ospakizun, eginera eta irakaskuntzaren bidez.

2. Langile migratzaileek eta horien familiakoek ez dute jasango inolako derrigortzerik, euren aukerako erlijioa edo sinesmena izan edo bereganatzeko askatasuna mugatzen duenik.

3. Norberaren erlijioa edo sinesmenak adierazteko askatasunaren muga bakarrak izango dira legeak ezarritakoak eta beharrezkoak direnak segurtasuna, ordena, moral edo osasun publikoak edo gainerakoen oinarrizko eskubide eta askatasunak babesteko.

4. Konbentzio honetako estatu alderdiek konpromisoa hartzen dute, errespetatzeko gurasoen askatasuna, euretako bat, gutxienez, langile migratzailea denean, eta, hala denean, legearen arabera tutoreen askatasuna, seme-alabei eskain diezaieten euren pentsaerekin bat egiten duen erlijio- eta moral-hezkuntza.

13. artikulua

1. Langile migratzaileen eta horien familiakoen iritzi-eskubideak ez du izango inolako esku-sartzerik.

2. Langile migratzaileek eta horien familiakoek adierazpen-askatasunerako eskubidea izango dute; eskubide horretara biltzen da era guztietako informazioa eta ideiak bildu, jaso eta zabaltzeko askatasuna, mugak kontuan hartu gabe, ahoz, idatziz edo inprimatuta, modu artistikoan edo eurek aukeratutako beste edozein bide baliatuta.

3. Artikulu honetako 2. paragrafoan jasotako eskubide horren egikaritzak betebeharrak eta ardura bereziak eratortzen ditu. Beraz, eskubide horren egikaritzari zenbait murrizketa egin ahal izango zaizkio, baldin eta halakoak lege ezarri eta beharrezkoak badira, hurrengo helburuetarako:

a) Gainerakoen eskubideak eta izen ona errespetatzea;

b) Kasuan kasuko estatuen segurtasun nazionala, ordena publikoa edo osasun eta moral publikoak babestea;

c) Gerraren aldeko propaganda guztia saihestea;

d) Bereizkeria, borroka edo indarkeria eragiten dituen nazio-, arraza- edo erlijio-gorrotoaren edozein apologia saihestea.

14. artikulua

Langile migratzaileek edo horien familiakoek ez dute jasango nahierarako edo legearen aurkako esku-sartzerik bizitza pribatuan, familian, etxebizitzan, korrespondentzian edo beste edozein komunikazio-motatan, ezta legearen aurkako erasorik ere, euron ohorearen edo izen onaren kontra. Langile migratzaile guztiek eta horien familiakoek eskubidea izango dute, legearen babesa izateko halako esku-sartze edo erasoen aurka.

15. artikulua

Langile migratzaileak edo horien familiakoak ez dira nahierara gabetuko euren ondasunez, halakoak euren jabetza pertsonalekoak bakarrik izan nahiz beste pertsona batzuekin elkartuta izan. Enplegurako estatuan indarrean dagoen legeriaren ondorioz, langile migratzaile bati edo horren familiako bati ondasunak kentzen zaizkionean, oso-osoa edo zati batean, pertsona interesdunak eskubidea izango du kalte-ordain bidezko eta egokia jasotzeko.

16. artikulua

1. Langile migratzaileek eta horien familiakoek askatasunerako eta segurtasun pertsonalerako eskubidea izango dute.

2. Langile migratzaileek eta horien familiakoek estatuaren babes eragingarria jasotzeko eskubidea izango dute, funtzionario publikoek edo pertsona pribatuek, taldeek edo erakundeek eragindako indarkeria, gorputzeko kalte, mehatxu edo larderiaren aurka.

3. Legea betearazteko ardura duten funtzionarioek langile migratzaileen edo horien familiakoen nortasuna egiaztatuko dute legeak ezarritako prozedurekin bat etorritik.

4. Langile migratzaileak eta horien familiakoek ez dute jasango, banaka edo modu kolektiboan, nahierarako atxiloteta edo espetxealdirik; ez dira askatasunaz gabetuko, salbu eta legeak ezarritako arrazoiak daudenean eta legeak ezarritako prozedurekin bat etorritik jarduten denean.

5. Atxilotutako langile migratzaileek eta horien familiakoek atxiloteta-unean informazioa jasoko dute, ahal dela eurek ulertzen duten hizkuntza batean, atxiloteta-arrazoiaren inguruan, eta lehenbailehen jakinaraziko zaizkie, ulertzen duten hizkuntza batean, egotzi zaizkien akusazioak.

6. Arau-hauste penal baten ondorioz atxilotuta edo preso dauden langile migratzaileak eta horien familiakoak atzerapenik gabe jarriko dira epailearen edo eginkizun judizialak gauzatzeko legeak baimendutako beste funtzionario baten esku, eta atxilotu edo preso horiek eskubidea izango dute zentzuzko epean epaiketa izateko edo aske gelditzeko. Epaiketa izan behar duten pertsonen aurre-neurrizko espetxealdia ez da izan behar erregela nagusia, baina pertsona horien askatasuna berme batzuen mende izan daiteke, berme horien helburua bada akusatua epaiketa-ekitaldian edo eginbide prozesalen beste edozein unetan ager dadila ziurtatzea eta, hala denean, epaitza betearaztea.

7. Langile migratzaile bat edo horren familiako bat atxilotu, espetxean giltzapetu edo atzitzen denean, epaiketa izan arte, edo beste edozein modutara atxilotzen bada:

a) Atxilotuak hala eskatzen badu, atzerapenik gabe informatuko zaizkie horien jatorrizko estatuetakoko kontsuletxeetako edo diplomaziako agintariei atxiloketa edo espetxealdia eta neurri hori hartzeko arrazoiak;

b) Pertsona interesdunak eskubidea izango du agintari horiekin komunikatzeko. Interesdunak agintari horiei zuzendutako komunikazio oro atzerapenik gabe bidaliko da, eta interesdunak eskubidea izango du, halaber, atzerapenik gabe jasotzeko agintari horien komunikazioak;

c) Interesdunari atzerapenik gabe informatuko zaizkio eskubide hori, eta kasuan kasuko tratatuek eratorritako eskubideak, baldin eta halakoak aplikagarri badira kasuan kasuko estatuen artean, korrespondentzia trukatu eta agintari horien ordezkariekin biltzeko eta ordezkari horiekin kudeaketak egiteko euren lege-ordezkaritzari dagokionez.

8. Atxiloketarengatik edo espetxealdiarengatik askatasunaz gabetzen diren langile migratzaileek eta horien familiakoek eskubidea izango dute auzitegian prozedurak hasteko, auzitegi horrek atzerapenik gabe erabaki dezan atxiloketaren legezkotasunaren gainean eta horiek aske uztea agin dezan, atxiloketa legezkoa ez bada. Errekurtso hori egikaritzean, erabilitako hizkuntza ezin badute ulertu edo hitz egin, interprete baten laguntza jasoko dute, dohainekoa izango dena, hala behar izanez gero.

9. Legearen aurkako atxiloketaren edo espetxealdiaren biktima izan diren langile migratzaileek eta horien familiakoek kalte-ordaina galdatzeko eskubidea izango dute.

17. artikulua

1. Askatasunaz gabetutako langile migratzaileak edo horien familiakoak tratatuko dira gizatasunarekin eta gizakiaren duintasunari eta horren kultura-nortasunari zor zaien errespetuarekin.

2. Langile migratzaileak eta horien familiakoak akusatuak direnean, kondenatuengandik bananduta egongo dira, salbuespeneko inguruabarretan izan ezik, eta araubide desberdina izango dute, kondenatu gabeko pertsonentzat egokitutakoa. Adingabeak badira, adin nagusikoengandik bananduta egongo dira, eta horien auziaren ikustaldia ahalik azkarrena egingo da.

3. Migrazio-arloko xedapenak urratzeagatik iraganbideko estatuan edo enplegurako estatuan atxilotuta dauden langile migratzaileei edo horien familiakoei ostatu emango zaie, ahal den neurrian, kondenatutako pertsonentzako edo epaitzeke dauden pertsona atxilotuentzako lokaletatik kanpo.

4. Auzitegi batek ezarritako epaia betearazteko espetxealdi osoak iraun bitartean, langile migratzailearen edo horren familiakoen tratamenduak oinarritzeko helburu izango du horien berrezartzea eta gizarte-birgaikuntza. Delitugile adingabeak adin

nagusikoengandik bananduta egongo dira, eta euren adinarekin eta egoera juridikoarekin bat datorren tratamendua izango dute.

5. Atxiloketak edo espetxealdiak iraun bitartean, langile migratzaileek eta horien familiakoek nazionalen eskubide bera izango dute, euren familiakoen bitarteko.

6. Langile migratzaile bat askatasunaz gabetzen denean, kasuan kasuko estatuko agintari eskudunek arreta emango diote horren familiakoek, bereziki, ezkontideak eta adingabeko seme-alabek, dituzten arazoei.

7. Langile migratzaileek eta horien familiakoek pairatu behar dutenean enplegurako estatuan edo iraganbideko estatuan zein lege izan indarrean eta lege horiek jasotako atxiloketa edo espetxealdietarik edozein, izango dituzte estatu horietako nazionalen egoera berean daudenean dituzten eskubide berberak.

8. Langile migratzaile bat edo horren familiakoren bat atxilotzen bada, migrazio-arloko xedapenen arau-hauste bat egiaztatzeko, prozedura horrek sortutako kostuak ez dira izango euren kontura.

18. artikulua

1. Langile migratzaileek eta horien familiakoek kasuan kasuko estatuko nazionalen eskubide berberak izango dituzte, auzitegietan eta justizia-gorteetan. Eskubidea izango dute, eurek esan beharrekoa behar bezalako bermekin entzun dezan legeak ezarritako auzitegi eskudun, independente eta inpartzial batek, euren aurka azaldutako akusazioetarik edozein bideratzean, akusazio horiek zigor-arlokoak direnean, edo arlo zibilean dituzten eskubide eta betebeharrak zehazteko.

2. Langile migratzaile guztiek edo horien familiakoek eskubidea izango dute, delitu bat egiteagatik akusatuta daudenean, errugabeak direla uste izateko, legearen arabera errudun direla frogatzen ez den bitartean.

3. Prozesuak iraun bitartean, langile migratzaile guztiek eta horien familiakoek eskubidea edukiko dute, delitu bat egiteagatik akusatuta daudenean, gutxieneko berme hauek izateko:

a) Atzerapenik gabe informazioa jasotzea, ulertzen duten hizkuntza batean eta zehatz-mehatz, euren aurka azaldutako akusazioaren izaeraren eta arrazoiengatik inguruan;

b) Behar adina denbora eta baliabide egokiak izatea, euren defentsa prestatzeko eta eurek aukeratutako defendatzailearekin komunikatzeko;

c) Epaiketa izatea, bidegabeko atzerapenik gabe;

d) Prozesuan bertan izatea eta modu pertsonalean defendatu ahal izatea edo eurek aukeratutako defendatzaile baten laguntza izatea; informazioa jasotzea, defendatzailearen izan ezean, defendatzailea izateko eskubidearen inguruan, eta, justiziaren interesak hala eskatzen duenean beti, eurentzako ofiziozko

defendatzailea izendatzea, dohainik izendatuko dena, ordaintzeko behar adinako baliabiderik izan ezean;

e) Egozbide-lekukoei galderak egitea edo behartzea lekuko horiei galdeketa egitea, eta zuri-bide-lekukoen agerraldia lortzea, eta lekuko horiei galderak egitea, egozbide-lekukoen baldintza berberetan;

f) Interprete baten laguntza dohainik izatea, auzitegian erabilitako hizkuntza ulertzen ez badute edo hitz egiten ez badute;

g) Nork bere buruaren aurka adierazpenik ez egitea edo nork bere burua errudun ez aitortzea.

4. Adingabeei aplikatu beharreko prozeduran, kontuan hartuko dira horien adina eta gizarte-birgaikuntza sustatzeak duen garrantzia.

5. Langile migratzaileek eta horien familiakoek eskubidea izango dute, delitu batengatik errunduntzat jotzen direnean, kondena-epaitza eta ezarritako zigorra azter ditzan goragoko auzitegi batek, legeak ezarritakoarekin bat etorritik.

6. Gerogarrenean, langile migratzaile baten edo horren familiako baten aurkako kondena-epai irmoa aurkaratzen denean edo kondenatua indultatu denean, akats judiziala egin dela frogatzen duen egitateren bat gertatzeagatik edo egiaztatzeagatik, epai horren ondorioz zigorra jasan duenak kalte-ordaina jaso beharko du, legearekin bat etorritik, salbu eta egiaztatzen denean berari egotz dakiokeela, oso-osoan edo zati batean, garaiz azaldu ez izana egitate ezezaguna.

7. Langile migratzaileak edo horien familiakoak ezin izango dira epaitu edo zehatu delitu bat egiteagatik, baldin eta delitu hori dela bide alde aurretik kondenatu edo aske utzi badira epai irmo bidez, estatu interesduneko legearekin eta zigor-prozedurarekin bat etorritik.

19. artikulua

1. Langile migratzaileak edo horien familiakoak ez dira kondenatuko egite edo ez-egiteengatik, halakoak gauzatzeko unean ez bazen horien inguruko deliturik zuzenbide nazionalaren edo nazioarteko zuzenbidearen arabera; halaber, ez da ezarritako halakoak gauzatu zireneko garaian zein zigor aplikatu eta horren aldean astuna den zigorrik. Delitua egin ostean legeak xedatzen badu zigor arinagoa ezarri behar dela, xedapen hori onuragarri izango da interesdunarentzat.

2. Kondena-epai bat ematean, langile migratzaile batek edo horren familiako batek egindako delituarengatik, kontuan hartu beharko dira horien egoerarekin zerikusia duten alde humanitarioak, bereziki, bizilekua izateko eta lan egiteko eskubidea errespetatzeari dagokionez.

20 artikulua

1. Langile migratzaileak edo horien familiakoak ez dira espetxeratuko kontratu-betebehar bat ez gauzatzegatik.

2. Langile migratzaileak edo horien familiakoak ez dira gabetuko bizileku-baimenaz edo lan egiteko baimenaz, eta ez dira kanporatuko lan-kontratuak eratorritako betebeharren bat ez gauzatzeagatik, salbu eta betebeharrak hori gauzatzea beharrezko baldintza denean baimen horiek izateko.

21. artikulua

Legeak behar bezala baimendutako funtzionarioetarik kanpo inork ezin ditu nortasun-agiriak, estatu baten lurraldean sartzeko, egoteko, bizitzeko edo geratzeko baimenak edo lan egiteko baimenak konfiskatu edo hautsi, ezta halakoak hausteko ahaleginak egin ere. Agiri horiek konfiskatzea baimenduta dagoenean, konfiskatze hori ezin izango da gauzatu alde aurretik zehaztutako jaso-agiririk eman gabe. Inola ere ez da baimenduko langile migratzaile baten edo horren familiako baten pasaporte edo horren agiri baliokidea haustea.

22. artikulua

1. Langile migratzaileek eta horien familiakoek ezin dituzte jasan kanporatze-neurri kolektiboak. Kanporatze-kasu bakoitza banan-banan aztertu eta erabakiko da.

2. Langile migratzaileak eta horien familiakoak estatu alderdi batetik kanpora daitezke legearen arabera agintari eskudun baten erabakia bete behar denean bakarrik.

3. Erabaki hori komunikatuko zaie uler dezaketen hizkuntza batean. Hala eskatzen badute, betiere, beste arrazoiren batengatik nahitaezkoa ez bada, idatziz komunikatuko zaie, eta, segurtasun nazionalerako arrazoiek hala justifikatzeagatik, salbuespeneko inguruabarrak daudenean izan ezik, erabakiaren zioak ere aipatuko dira. Interesduneri eskubide horien gaineko informazioa emango zaie, erabakia eman aurretik edo, gehienez ere, erabakia emateko unean.

4. Agintari judizial batek behin betiko erabakia ematen duenean izan ezik, interesduneri eskubidea izango dute, kanporatzearen aurkaratze-arrazoiek azaltzeko, bai eta euren kasua agintari eskudunaren esku uzteko ere, hark azter dezan, salbu eta segurtasun nazionalerako premiazko arrazoiek horren aurka egiten dutenean. Azterketa hori egin arte, eskubidea izango dute kanporatze-erabakiaren betearazpena eten dadila eskatzeko.

5. Betearazitako kanporatze-erabaki bat gerogarrenean aurkaratzen denean, pertsona interesdunak eskubidea izango du legearen arabera kalte-ordaina erreklamatzeko, eta aurreko erabakia ez da erabiliko pertsona horri eragozteko kasuan kasuko estatuan berriro sartzeko.

6. Kanporatzea dagoenean, interesdunak zentzuzko aukera izango du, abiatu aurretik edo geroago, zor zaizkion alokairuen eta bestelako prestazioen ordainketa konpontzeko, eta betetzeke dituen betebeharrak gauzatzeko.

7. Kanporatze-erabakia betearaztea gorabehera, langile migratzailea edo horren familiakoa denean kanporatutakoa, horrek eskatu ahal izango du bere jatorrizko estatuaz besteko estatu batean sartzeko baimena. 8. Langile migratzaile baten edo

horren familiako baten kanporatze-prozedurak eratorritako gastuak ez dira horien konturakoak izango. Galdatu ahal izango zaie euren bidaia-gastuak ordaintzea.

9. Enplegurako estatutik kanporatu arren, horrek berez ez du kaltetuko langile migratzaile batek edo horren familiako batek estatu horretako legeriarekin bat etorritik eskuratu dituen eskubideak, zor zaizkion alokairuak eta bestelako prestazioak jasotzeko eskubidea barne.

23. artikulua

Langile migratzaileek eta horien familiakoek eskubidea izango dute, euren jatorrizko estatuko edo estatu horren interesak ordezkatzeko dituen estatuko kontsuletzeko edo diplomaziako agintarien babesa eta laguntza jasotzeko, konbentzio honek zein eskubide aitortu eta eskubideok kaltetzen diren kasu guztietan. Bereziki, kanporatzea dagoenean, atzerapenik gabe informatuko zaio eskubide horren inguruan pertsona interesdunari, eta kanporatzea agindu duen estatuko agintariek ahalbidetuko dute eskubide hori egikaritzea.

24. artikulua

Langile migratzaileek eta horien familiakoek toki guztietan eskubidea izango dute euren nortasun juridikoa aitortu dakien.

25. artikulua

1. Langile migratzaileek jasoko dute enplegurako estatuko nazionalak jasotzen duten tratua, ordainsariak eta hurrengo gaiak direla eta:

a) Bestelako lan-baldintza batzuk, hau da, aparteko orduak, lan-ordutegia, asteko atsedenaldia, ordaindutako oporrak, segurtasuna, osasuna, enplegu-harremanen amaiera eta legeria nahiz eginera nazionalekin bat etorritik halakoan artean dagoen beste edozein lan-baldintza;

b) Bestelako enplegu-baldintza batzuk, hau da, enplegurako gutxieneko adina, etxean lan egitearen inguruko murrizketa eta legeria nahiz eginera nazionalekin bat etorritik enplegu-baldintzat jotzen diren gaietarik beste edozein.

2. Ez da legezkoa izango enplegurako kontratu pribatuetan kaltetzea artikulua honetako 1. paragrafoan aipatu den printzipioa, tratu-berdintasunari buruzkoa.

3. Estatu alderdiek egoki diren neurri guztiak hartuko dituzte, ziurtatzeko langile migratzaileak printzipio horrek eratorritako eskubideez gabetuak ez izatea, irregulartasunak izateagatik euren egonaldian edo enpleguan. Bereziki, enplegatzaileak ez dira aske geratuko inolako betebeharrak juridikotik eta kontratu-betebeharratik, eta horien betebeharrak ere ez dira mugatuko irregulartasun horietatik edozein izateagatik.

26. artikulua

1. Estatu alderdiek langile migratzaileen eta horien familiakoen eskubidea aitortuko dute, hurrengoak gauzatzeko:

a) Sindikatuen edo legearekin bat etorri ezarritako elkarteetarik beste edozeinen bilera eta jardueretan parte hartzea, euren interes ekonomiko, sozial, kultural eta beste mota batekoak babesteko, kasuan kasuko antolaketa-arauen mende jardutea izanik horien muga bakarra;

b) Askatasunez afiliatzea edozein sindikatutan edo aipatu elkarteetarik edozeinetan, kasuan kasuko antolaketa-arauen mende jardutea izanik horien muga bakarra;

c) Edozein sindikaturen edo aipatu elkarteetarik edozeinen babesa eta laguntza eskatzea.

2. Legeak ezarritako murrizketak baino ezin izango zaizkio ezarri eskubide horiek egikaritzeari, murrizketok gizarte demokratiko batean beharrezkoak direnean, segurtasun nazionala edo ordena publikoa dela eta, edo enparauen eskubide eta askatasunak babesteko.

27. artikulua

1. Langile migratzaileek eta horien familiakoek enplegurako estatuan jasoko dute, Gizarte Segurantzari dagokionez, bertako nazionalen tratua bera, betiere, gauzatzen badituzte estatu horretako legeria aplikagarrian edo bitariko eta alderdi anitzeko tratatu aplikagarrietan ezarritako betekizunak. Jatorrizko estatuko eta enplegurako estatuko agintari eskudunek edozein unetan eman ahal izango dituzte arau honen aplikazio-modalitateak zehazteko beharrezkoak diren xedapenak.

2. Legeria aplikagarriak ez duenean ahalbidetzen langile migratzaileek edo horien familiakoek prestazioren bat izatea, kasuan kasuko estatuak, antzeko egoeretan nazionalen emandako tratua oinarri hartuta, balioetsiko du prestazio horiei begira egin dituzten kontribuzioen zenbatekoa itzultzeko aukera.

28. artikulua

Langile migratzaileek eta horien familiakoek eskubidea izango dute presako edozein mediku-arreta jasotzeko, halakoa beharrezkoa denean horien bizitza zaintzeko edo euren osasunari begira kalte konponezinak saihesteko, kasuan kasuko estatuko nazionalen tratu-berdintasuneko baldintzetan. Presako mediku-arreta hori ezin izango da ukatu egonaldiaren edo enpleguaren inguruko irregulartasun-arrazoiengatik.

29. artikulua

Langile migratzaileen seme-alaba guztiek eskubidea izango dute izena izateko, euren jaiotza erregistratzeko eta naziotasuna izateko.

30. artikulua

Langile migratzaileen seme-alaba guztiek baliatuko dute hezkuntzarako oinarrizko eskubidea, kasuan kasuko estatuko nazionaletikiko tratu-berdintasunean. Langile migratzaileen seme-alabak eskolaurreko edo eskolarako irakaskuntza-erakunde publikoetan sartzea ezin izango da ukatu edo mugatu, gurasoetarik edonoren egonaldiari edo enpleguari buruzko egoera irregularra edo seme-alabaren egonaldi irregularra dela eta, enplegurako estatuan.

31. artikulua

1. Estatu alderdiek zainduko dute langile migratzaileen eta horien familiakoen kultura-nortasuna errespetatzea, eta ez dute eragotziko horiek euren jatorrizko estatuekin kultura-loturak izatea.

2. Estatu alderdiek egoki diren neurriak hartu ahal izango dituzte, horren inguruan laguntzeko eta esfortzuak eskatzeko.

32. artikulua

Langile migratzaileek eta horien familiakoek, enplegurako estatuko egonaldia amaitzean, eskubidea izango dute euren sarrerak eta aurrezkiak eta, kasuan kasuko estatuetako legeria aplikagarriarekin bat etorritik, euren jabetzapeko gauzak eta beste ondasun batzuk transferitzeko.

33. artikulua

1. Langile migratzaileek eta horien familiakoek eskubidea izango dute, jatorrizko estatuak, enplegurako estatuak edo iraganbideko estatuak, kasuaren arabera, informazioa eman diezaieten hurrengo inguruan:

a) Konbentzio honen arabera dituzten eskubideak;

b) Onartuak izateko betekizunak, legearen arabera dituzten eskubide eta betebeharrak eta estatu interesdunaren eginera, eta estatu horretan administrazio formalitateak edo beste mota batekoak betetzea ahalbidetzen dieten inguruabarretarik beste edozein.

2. Estatu alderdiek egokitzat jotzen dituzten neurri guztiak hartuko dituzte, informazio hori zabaltzeko, edo zaintzeko enplegatzaileek, sindikatuek edo beste organo nahiz erakunde egoki batzuek informazio horren berri ematen dutela. Egoki denaren arabera, gainerako estatu interesdunekin lankidetzan arituko dira.

3. Informazio egokiaren berri emango zaie hori dohainik eskatzen duten langile migratzaileei eta horien familiakoei, eta, ahal den neurrian, horiek uler dezaketen hizkuntza batean.

34. artikulua

Konbentzioaren zati honetako xedapenek ez dituzte salbuetsiko langile migratzaileak eta horien familiakoak iraganbideko estatu guztietako eta enplegurako estatuko

legeak eta erregelamenduak betetzetik, ezta estatu horietako biztanleen kultura-nortasuna errespetatzeko betebeharretik ere.

35. artikulua

Konbentzioaren zati honetako xedapenak ez dira interpretatuko agirigabeko edo egoera irregularrean dauden langile migratzaileak edo horien familiakoak erregulariza daitezten edo horien egoera modu horretara erregularizatzeko eskubidea sor dadin, eta xedapen horiek ez diete kalterik egingo konbentzio honetako VI. zatian jasotako neurriei, nazioarteko migrazioa baldintza bidezko eta egokietan egitea ziurta dadin.

IV. ZATIA Agiridunak diren edo egoera irregularrean dauden langile migratzaileen eta horien familiakoen beste eskubide batzuk

36. artikulua

Enplegurako estatuan agiridunak diren edo egoera irregularrean dauden langile migratzaileek eta horien familiakoek konbentzioaren zati honetan aipatutako eskubideak izango dituzte, III. zatian aipatutakoez gain.

37. artikulua

Abiatu aurretik, edo, gehienez ere, enplegurako estatuan onartuak izateko unean, langile migratzaileek eta horien familiakoek eskubidea izango dute, jatorrizko estatuak edo enplegurako estatuak, kasuaren arabera, informazio osoa eman diezaien, euren onarpenari aplikatzen zaizkion baldintza guztien gainean eta, bereziki, euren egonaldiari eta gauza ditzaketen jarduera ordainduen gainean, bai eta enplegurako estatuan gauzatu beharko dituzten betekizunen gainean eta baldintza horiek aldarazteko aintzat hartu beharko dituzten agintarien gainean ere.

38. artikulua

1. Enplegurako estatuak ahal duten guztia egingo dute langile migratzaileei eta horien familiakoei aitortzeko aldi batez absente izatea, horrek eraginik izan gabe bertan egoteko edo lan egiteko duten baimenean, kasuaren arabera. Hori aitortzean, enplegurako estatuak kontuan hartu beharko dituzte langile migratzaileen eta horien familiakoen beharrizan eta betebeharrak bereziak, batik bat, euren jatorrizko estatuatan.

2. Langile migratzaileek eta horien familiakoek eskubidea izango dute oso-osoan informatuta egoteko, aldi baterako absentzia horiek baimentzeko baldintzen inguruan.

39. artikulua

1. Langile migratzaileek eta horien familiakoek eskubidea izango dute enplegurako estatuan mugimendu-askatasuna izateko eta euren bizilekua askatasunez aukeratzeko.

2. Artikulu honetako 1. paragrafoan aipatutako eskubideek ez dute inolako murrizketarik izango, salbu eta murrizketa horiek legeak ezartzen dituenean, beharrezkoak direnean segurtasun nazionala, ordena publikoa, osasun eta moral publikoa edo enparauen eskubide eta askatasunak babesteko, eta bateragarriak direnean konbentzio honetan aitortutako gainerako eskubideekin.

40. artikulua

1. Langile migratzaileek eta horien familiakoek eskubidea izango dute enplegurako estatuan elkarrekin eta sindikatuak eratzeko, euren interes ekonomiko, sozial, kultural eta beste mota batekoak suspertu eta babesteko.

2. Legeak ezarritako murrizketak baino ezin izango zaizkio ezarri eskubide horren egikaritzari, eta murrizketok gizarte demokratiko batean beharrezkoak direnean, segurtasun nazionala edo ordena publikoa dela eta, edo enparauen eskubide eta askatasunak babesteko.

41. artikulua

1. Langile migratzaileek eta horien familiakoek eskubidea izango dute euren jatorrizko estatuko gai publikoetan parte hartzeko eta estatu horretan egindako hauteskundeetan botoa emateko eta hautatuak izateko, bertako legeriarekin bat etorritik.

2. Kasuan kasuko estatuak ahalbidetuko dute, egoki denaren arabera eta bertako legeriarekin bat etorritik, eskubide horiek egikaritzea.

42. artikulua

1. Estatu alderdiek aintzat hartuko dute prozedurak edo erakundeak ezartzeko aukera, halakoek ahalbide dezaten kontuan hartzea, jatorrizko estatuetan nahiz enplegurako estatuetan, langile migratzaileen eta horien familiakoen beharrian, asmo edo betebeharrak bereziak, eta aintzat hartuko dituzte, baita ere, bidezkoa denaren arabera, langile migratzaileek eta horien familiakoek erakunde horietan askatasunez hautatutako ordezkariak izateko aukera.

2. Enplegurako estatuak ahalbidetuko dute, bertako legeria nazionalarekin bat etorritik, langile migratzaileen eta horien familiakoen kontsulta edo parte-hartzea tokiko erkidegoetako bizitzari eta administrazioari buruzko erabakietan.

3. Langile migratzaileek eskubide politikoak baliatu ahal izango dituzte enplegurako estatuan, baldin eta estatu horrek, subiranotasuna egikaritzean, eskubide horiek aitortzen badizkie.

43. artikulua

1. Langile migratzaileek tratu-berdintasuna izango dute enplegurako estatuko nazionalerako, hurrengoengatik:

- a) Irakaskuntza-erakunde eta -zerbitzuetara sartzea, onarpen-betekizunen eta kasuan kasuko erakunde eta zerbitzuetako beste arauketa batzuen arabera;
- b) Lanbide- eta kolokazio-orientazioko zerbitzuetan sartzea;
- c) Lanbide-prestakuntzarako eta trebakuntzarako zerbitzu eta erakundeetara sartzea;
- d) Etxebizitza eskura izatea, baita etxebizitzarako gizarte-planak ere, eta alogeren esparruan esplotazioaren aurkako babesa izatea;
- e) Gizarte- eta osasun-zerbitzuak eskura izatea, betiere, kasuan kasuko planetan parte hartzeko ezarri betekizunak gauzatu badira;
- f) Kooperatibetan eta autokudeaketa-araubideko enpresetan sartzea, horrek ez duela eragingo langile migratzailearen izaera galtzea, eta horien organoetako arauen eta erregelamenduen arabera;
- g) Kultura-bizitza eskura izatea eta horretan parte hartzea.

2. Estatu alderdiek sustatuko dituzte tratu-berdintasun eragingarria bermatzen duten baldintzak, langile migratzaileek artikuluko 1. paragrafoan aipatu eskubideak baliatzeko aukera izan dezaten, betiere, langile horien egonaldiako ezarritako baldintzek, enplegurako estatuko baimenaren arabera, kasuan kasuko betekizunekin bat egiten badute.

3. Enplegurako estatuak ez dute eragotziko langile migratzaileen enplegatzaile batek horientzako etxebizitzak edo gizarte- nahiz kultura-zerbitzuak eratzea. Konbentzio honetako 70. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuz, enplegurako estatuak zerbitzu horiek eratzeko aukera ezarri ahal izango du, estatu horretan orokorrean halako zerbitzuak eratzeko ezarritako betekizunen mende.

44. artikulua

1. Estatu alderdiek, aitortuz, familia dela gizartearen oinarritzko talde naturala eta funtsezkoa, eta familiak eskubidea duela gizartetik eta estatutik babesa jasotzeko, neurri egokiak hartuko dituzte, langile migratzailearen familia-unitateari babesa ziurtatzeko.

2. Estatu alderdiek hartuko dituzte egokitzat jotzen dituzten neurriak eta euren eskumeneren esparrura biltzen direnak, ahalbidetzeko langile migratzaileak biltzea euren ezkontideekin edo langile horiekin harremanak dituzten pertsonekin, aplikatu beharreko zuzenbidearekin bat etorritik harreman horiek ezkontzaren antzeko ondoreak sortzen dituztenean, bai eta adingabeko seme-alaba ezkongabeekin ere, halakoak euren ardurapean daudenean.

3. Enplegurako estatuak, arrazoi humanitarioengatik, mesedegarritzat hartuko dute, langile migratzailearen familiako beste batzuei ere artikuluko 2. paragrafoan jasotako tratu bera ematea.

45. artikulua

1. Langile migratzaileen familiakoek enplegurako estatuan tratu-berdintasuna izango dute estatu horretako nazionalekiko, hurrengoeng inguruan:

a) Irakaskuntza-erakunde eta -zerbitzuetara sartzea, onarpen-betekizunen eta kasuan kasuko erakunde eta zerbitzuetako beste arauketa batzuen arabera;

b) Orientaziorako eta bokazio-trebakuntzarako erakunde eta zerbitzuetan sartzea, betiere, horietan parte hartzeko betekizunak gauzatzen badira;

c) Gizarte- eta osasun-zerbitzuak eskura izatea, betiere, kasuan kasuko planetan parte hartzeko ezarri betekizunak gauzatu badira;

d) Kultura-bizitza eskura izatea eta horretan parte hartzea.

2. Enplegurako estatuak, jatorrizko estatuarekin elkarlanean arituz, hori bidezkoa denean, langile migratzaileen seme-alabak tokiko eskola-sistemara biltzea ahalbidetzeko politika gauzatu dute, bereziki, tokiko hizkuntzaren irakaskuntzari dagokionez.

3. Enplegurako estatuak ahalbidetuko dute langile migratzaileen seme-alabei eskaintzea euren ama-hizkuntza eta -kulturako irakaskuntza eta, bidezkoa denean, jatorrizko estatuak elkarlanean arituko dira.

4. Enplegurako estatuak irakaskuntza-plan bereziak ezarri ahal izango dituzte, langile migratzaileen seme-alaben ama-hizkuntzan, jatorrizko estatuarekin elkarlanean arituz, hori beharrezkoa izanez gero.

46. artikulua

Langile migratzaileak eta horien familiakoak salbuetsiko dira, kontuan hartuz kasuan kasuko estatuarekin aplikagarri den legeria eta kasuan kasuko nazioarteko akordioak, eta estatu horiek aduana-batasunetan parte hartzearen ondorioz dituzten betebeharrak, eskubideak eta zergak ordaintzetik, inportatu edo esportatzeagatik euren jabetzako gauzak eta etxeko tresnak, bai eta enplegurako estatuan ordaindutako jarduera gauzatzeko onartuak izan ondoren jarduera hori gauzatzeko behar den ekipamendua ere:

a) Jatorrizko estatutik edo ohiko bizilekua dagoen estatutik irteteko unean;

b) Enplegurako estatuan hasierako onarpena lortzeko unean;

c) Enplegurako estatutik behin betiko irteteko unean;

d) Jatorrizko estatura edo ohiko bizilekua dagoen estatura behin betiko itzultzeko unean.

47. artikulua

1. Langile migratzaileek eskubidea izango dute, sarrerak eta aurrezkiak, bereziki, euren familiako kideak mantentzeko beharrezkoak diren funtsak, transferitzeko

enplegurako estatutik euren jatorrizko estatura edo beste edozein estatura. Transferentzia horiek egingo dira estatu interesduneko legeria aplikagarrian ezarritako prozeduren arabera eta nazioarteko akordio aplikagarriekin bat etorriz.

2. Estatu interesdunek transferentzia horiek ahalbidetzeko neurri egokiak hartuko dituzte.

48. artikulua

1. Tributazio bikoitzari buruzko akordioak gorabehera, langile migratzaileek eta horien familiakoek, enplegurako estatuan izandako sarrerei dagokienez:

a) Ez dituzte ordainduko antzeko inguruabarretan nazionalek ordaindu behar dituzten zerga, eskubide eta kargak baino handiagoak edo astunagoak;

b) Zergetan kenkariak edo salbuespenak eta tributu-arinketak izateko eskubidea edukiko dute, halakoak nazionalei aplikatzen zaizkienean, antzeko inguruabarretan, horietara biltzen direla, baita ere, familiakoak ardurapean izatearen ondoriozko tributu-arinketak.

2. Estatu alderdiek ahaleginak egingo dituzte neurri egokiak hartzeko, saihestu dadin langile migratzaileen eta horien familiakoen sarrera eta aurrezkiek tributazio bikoitza izatea.

49. artikulua

1. Legeria nazionalak modu bananduan galdatzen dituenean bizileku- eta enplegu-baimenak, enplegurako estatuak langile migratzaileei emango diete bizileku-baimena, gutxienez, iraungo duenak ordaindutako jarduera gauzatzeko baimenaldiak beste.

2. Enplegurako estatuetan langile migratzaileek ordaindutako jarduera bat aukeratzeko askatasuna dutenean, ez da ulertuko langile migratzaileak egoera irregularrean daudenik, eta langile horiei ez zaie kenduko bizileku-baimenik, ordaindutako jarduerari uzteagatik euren lan egiteko baimena edo antzeko baimena iraungi baino lehenago.

3. Artikulu honetako 2. paragrafoko langile migratzaileek ordaindutako beste jarduera bat bilatzeko behar adinako denbora izan dezatela ahalbidetzeko, langile horiei ez zaie kenduko bizileku-baimenik, gutxienez, langabeziaren ondoriozko prestazioetarako eskubideak iraun bitartean.

50. artikulua

1. Langile migratzaile bat hiltzen bada edo ezkontza desegiten bada, enplegurako estatuak mesedegarrizat joko du bertan egoteko baimena ematea langile migratzaile horren familiakoei, halakoak estatu horretan bizi direnean familia-unitateko kide izateagatik; enplegurako estatuak kontuan hartuko du familiako kide horiek bertan bizitako aldia.

2. Baimen hori ematen ez zaien familiako kideei zentzuzko denbora emango zaie, enplegurako estatuan euren arazoak konpontzeko, bertatik irten aurretik.

3. Ezin da interpretatu artikulua honen 1 eta 2. paragrafoetako xedapenek kalte egiten diotenik familiako kide horiei aitortutako eskubideari, enplegurako estatuan egon eta lan egiteko, hori berori aitortu dutenean enplegurako estatuko legeriak edo estatu horri aplikatzen zaizkion bitariko eta alderdi anitzeko tratatuek.

51. artikulua

Langile migratzaileak ez dira egoera irregularrean egongo, enplegurako estatuan ordaindutako jarduera askatasunez aukeratzeko baimenik ez dutenean, eta langile horiei ez zaie bizileku-baimenik kenduko ordaindutako jarduerari uzteagatik lan egiteko baimenaldia iraungi baino lehenago, salbu eta bizileku-baimena esanbidez dagoenean ordaindutako jarduera jakin baten mende, jarduera horren ondorioz onartu direlako langile horiek. Langile migratzaile horiek eskubidea izango dute, lan egiteko baimenaldiak iraun bitartean, beste enplegu bat bilatzeko, herri-lanetako programetan parte hartzeko eta berriro trebatzeko, lan egiteko baimenean ezarritako baldintzak eta mugak kontuan hartuz.

52. artikulua

1. Langile migratzaileek enplegurako estatuan ordaindutako jarduera aukeratzeko askatasuna izango dute, hurrengo murrizketa edo baldintzak kontuan hartuz.

2. Edozein langile migratzaileari dagokionez, enplegurako estatuak aukeran izango du:

a) Enplegu-, eginkizun- zerbitzu- edo jarduera-kategoria jakin batzuk eskura izatearen inguruan murrizketak ezartzea, hori beharrezkoa denean estatuaren onurarako eta hala jaso duenean legeria nazionalak;

b) Ordaindutako jarduera bat askatasunez aukeratzeko murrizketak ezartzea, enplegurako estatutik kanpoko lurralde batean lortutako lanbide-kalifikazioak aitortzeko baldintzen legeriarekin bat etorriz. Aitzitik, estatu alderdi interesdunek kalifikazio horiek aitortzeko ahaleginak egingo dituzte.

3. Langile migratzaileen lan egiteko baimena iraupen mugatukoa denean, enplegurako estatuak aukeran izango du, orobat:

a) Ordaindutako jarduera bat askatasunez aukeratzeko eskubidearen baldintza izatea langile migratzaileak enplegurako estatuaren lurraldean legez bizitzea, ordaindutako jarduera bat gauzatzeko, estatu horretako legeria nazionalean zehaztutako epealdian zehar, epealdi hori ez dela izango bi urtetik gorakoa;

b) Langile migratzaileentzako ordaindutako jarduerak murriztea, nazionalei edo ondore horietarako nazionalekin berdinetsitako pertsoneri lehentasuna ematen dien politika aplikatzeagatik, indarreko legeriaren edo bitariko nahiz alderdi anitzeko akordioen ondorioz. Mota horretako mugak ez zaizkie aplikatuko langile migratzaileei, horiek enplegurako estatuaren lurraldean legez bizi izan direnean

ordaindutako jarduera bat gauzatzeko, estatu horretako legeria nazionalak ezarritako epealdian zehar, epealdi hori ez dela izango bost urtetik gorakoa.

4. Enplegurako estatuak baldintzak ezarriko ditu, enplegu bat gauzatzeko onartu den langile migratzaile batek beregaineko lanak egiteko baimena izan dezan. Kontuan hartuko da langilea enplegurako estatuan legez bizi izandako epealdia.

53. artikulua

1. Langile migratzaileen bizileku-baimenak edo onarpenak ez duenean mugarik denborari dagokionez edo halakoak modu automatikotan berriztatzen direnean, langile horien familiakoek askatasunez aukeratu ahal izango dute ordaindutako jarduera bat, langile migratzaile horiei aplikatzen zaizkien baldintza berberetan, konbentzio honetako 52. artikuluekin bat etorritik.

2. Langile migratzailearen familiakoei ez zaienean baimentzen ordaindutako jarduera askatasunez aukeratzea, estatu alderdiek mesedegarritzat joko dute horiei lehentasuna ematea, ordaindutako jarduera bat gauzatzeko baimena lortzeari dagokionez, enplegurako estatuan onartuak izatea lortu nahi duten beste langile batzuei begira, kontuan hartuz bitariko eta alderdi anitzeko akordio aplikagarriak.

54. artikulua

1. Bizileku-baimenaren edo lan egiteko baimenaren baldintzak eta konbentzio honetako 25 eta 27. artikuluetan jasotako eskubideak gorabehera, langile migratzaileek tratu-berdintasuna izango dute enplegurako estatuko nazionalakiko, hurrengo alorretan:

a) Kaleratzeen aurkako babesa;

b) Langabeziaren ondoriozko prestazioak;

c) Langabeziaren aurka egiteko sortutako herri-lanen programak eskura izatea;

d) Beste enplegu bat lortzea, lanik gabe geratuz gero, edo ordaindutako beste jarduera bati utziz gero, kontuan hartuz konbentzio honetako 52. artikuluan xedatutakoa.

2. Langile migratzaile batek alegatzen badu bere enplegatzaileak lan-kontratuko baldintzak urratu dituela, langile horrek eskubidea izango du enplegurako estatuko agintari eskudunetara jotzeko, konbentzio honetako 18. artikuluen 1. paragrafoak xedatutakoaren arabera.

55. artikulua

Ordaindutako jarduera bat gauzatzeko baimena lortu duten langile migratzaileek, euren jarduera baimen horri atxikitako baldintzen arabera gauzatzeko dutenak, enplegurako estatuko nazionalen tratu bera jasotzeko eskubidea izango dute, nazional horiek ordaindutako jarduera hori gauzatzen dutenean.

56. artikulua

1. Langile migratzaileak eta horien familiakoak, konbentzioaren zati honek aipatu dituenak, ezin dira enplegurako estatu batetik kanporatu, salbu eta estatu horretako legeria nazionalean zehaztutako arrazoiak daudenean eta III. zatian ezarritako babesak kontuan hartu direnean.
2. Ezin da kanporatzea baliatu, langile migratzaile bat edo horren familiako bat gabetzeko bizileku-baimenak eta lan egiteko baimenak eratorritako eskubideez.
3. Langile migratzaile bat edo horren familiako bat kanporatu behar ote den erabaki behar denean, kontuan hartu behar dira izaera humanitarioko inguruabarrak eta, baita ere, kasuan kasuko pertsonak enplegurako estatuan bizitzen daraman denbora.

V. ZATIA. Langile migratzaileen kategoria bereziei eta horien familiakoei aplikatu beharreko xedapenak

57. artikulua

Konbentzioko zati honetan aipatu kategoria berezietako langile migratzaileek eta horien familiakoek, halakoak agirigabeak direnean edo egoera irregularrean daudenean, izango dituzte III. zatiko eskubideak ez ezik, IV. zatiko eskubideak ere, jarraian zehazten diren aldarazpenak kontuan hartuz.

58. artikulua

1. Mugaz gaindiko langileek, konbentzio honetako 2. artikuluko 2. paragrafoko a) idatz-zatian definitutakoek, izango dituzte IV. zatian aitortutako eskubideak, halakoak izan ditzaketenean enplegurako estatuko lurraldean egoteagatik eta lan egiteagatik, kontuan hartuz estatu horretan ez dutela ezarri euren ohiko bizilekua.
2. Enplegurako estatuak mesedegarritzat joko dute, epealdi jakin bat igaro ostean mugaz gaindiko langileei ematea ordaindutako jarduera bat askatasunez aukeratzeko eskubidea. Eskubide hori ematea ez du eraginik izango langile horien mugaz gaindiko izaeran.

59. artikulua

1. Sasoiko langileek, konbentzio honetako 2. artikuluko 2. paragrafoko b) idatz-zatian definitutakoek, izango dituzte IV. zatian aitortutako eskubideak, halakoak izan ditzaketenean enplegurako estatuko lurraldean egoteagatik eta lan egiteagatik, eta eskubideok bateragarriak direnean estatu horretan sasoiko langile gisa duten izaerarekin, kontuan hartuz estatu horretan urteko sasoi batean baino ez daudela.
2. Enplegurako estatuak, artikuluko honetako 1. paragrafoa kontuan harturik, aztertuko du bere lurraldean denbora luzez enplegatuturik izan diren sasoiko langileei dagokienez, ordaindutako beste jarduera batzuk gauzatzeko aukera ematea komeni den, horiei lehentasuna emanez, estatu horretan onartuak izan nahi duten beste

langile batzuen aurretik, kontuan hartuta bitariko eta alderdi anitzeko akordio aplikagarriak.

60. artikulua

Langile ibiltariak, konbentzio honetako 2. artikuluko 2. paragrafoko e) idatz-zatian definitutakoek, izango dituzte IV. zatian aitortutako eskubide guztiak, halakoak izan ditzaketenean enplegurako estatuko lurraldean egoteagatik eta lan egiteagatik, eta eskubideok bateragarriak direnean estatu horretan langile ibiltari gisa duten izaerarekin.

61. artikulua

1. Proiektu bati lotutako langileak, konbentzio honetako 2. artikuluko 2. paragrafoko f) idatz-zatian definitutakoek, eta horien familiakoek, izango dituzte IV. zatian aitortutako eskubideak, horietarik bazter utzi direla 43. artikuluko 1. paragrafoko b) eta c) idatz-zatietan, 43. artikuluko 1. paragrafoko d) idatz-zatian, etxebizitzarako gizarte-planei dagokienez, 45. artikuluko 1. paragrafoko b) idatz-zatian, eta 52.etik 55.era arteko artikuluetan ezarritakoak.

2. Proiektu bati lotutako langile batek alegatzen badu bere enplegatzaileak lan-kontratuko baldintzak urratu dituela, langile horrek eskubidea izango du, enplegatzailearen gainean jurisdikzioa duen estatuko agintari eskudunetara jotzeko, konbentzio honetako 18. artikuluan 1. paragrafoak xedatutakoaren arabera.

3. Bitariko edo alderdi anitzeko akordio aplikagarriak kontuan hartuz, estatu alderdiek ahaleginak egingo dituzte, proiektu bati lotutako langileak behar bezala babestuta egon daitezzen euren jatorrizko estatuak edo ohiko bizilekua dagoen estatuko Gizarte Segurantzako sistemetan, proiektu horri loturik dauden bitartean. Estatu alderdi interesdunek egoki diren neurriak hartuko dituzte, horren inguruan eskubideak ukatzea edo ordainketak bikoiztea saihesteko.

4. Konbentzio honetako 47. artikuluan eta kasuan kasuko bitariko edo alderdi anitzeko akordioetan xedatutakoa gorabehera, estatu alderdi interesdunek ahalbidetuko dute proiektu bati lotutako langileen sarrerak ordaintzea euren jatorrizko estatuan edo ohiko bizilekua dagoen estatuan.

62. artikulua

1. Enplegu jakin bat duten langileak, konbentzio honetako 2. artikuluko 2. paragrafoko g) idatz-zatian definitutakoek, izango dituzte IV. zatian aitortutako eskubideak, horietarik bazter utzi dela 43. artikuluko 1. paragrafoko b) eta c) idatz-zatietan, 43. artikuluko 1. paragrafoko d) idatz-zatian, etxebizitzarako gizarte-planei dagokienez, 52. artikuluan eta 54. artikuluko 1. paragrafoko b) idatz-zatian xedatutakoa.

2. Enplegu jakin bat duten langileen familiakoek izango dituzte langile migratzaileen familiakoei konbentzio honetako IV. zatian aitortu zaizkien eskubideak, bazter utzita 53. artikuluan xedatutakoa.

63. artikulua

1. Beregaineko langileek, konbentzio honetako 2. artikuluko 2. paragrafoko h) idatz-zatian definitutakoek, izango dituzte konbentzio honetan aitortutako eskubideak, bazter utzita lan-kontratua zein langilek izan eta langile horiei bakarrik aplikatzen zaizkienak.

2. Konbentzio honetako 52 eta 79. artikuluetan xedatutakoari kalterik egin gabe, beregaineko langileen jarduera ekonomikoa amaitzen denean, horrek berez ez du berarekin ekarriko langile horiei edo horien familiakoei baimena kentzea, enplegurako estatuan egoteko edo bertan ordaindutako jarduera bat gauzatzeko, salbu eta bizileku-baimena esanbidez dagoenean ordaindutako jarduera jakin baten mende, jarduera horren ondorioz onartu zirelako langile horiek.

VI. ZATIA. Baldintza bidezko, egoki, duin eta zilegiak sustatzea, langileen eta horien familiakoen nazioarteko migrazioari dagokionez

64. artikulua

1. Konbentzio honetako 79. artikuluko xedapenei kalterik egin gabe, estatu alderdi interesdunek elkarri kontsultak egingo dizkiete eta elkarlanean jardungo dute, egoki denaren arabera, baldintza bidezko, egoki eta duinak sustatzeko, langileen eta horien familiakoen nazioarteko migrazioari dagokionez.

2. Horren inguruan, behar bezala kontuan hartuko dira, lan-eskuaren inguruko beharrianak eta baliabideak ez ezik, langile migratzaileen eta horien familiakoen beharrian sozial, ekonomiko, kultural eta beste mota batekoak ere, eta migrazio horren ondorioak kasuan kasuko erkidegoei dagokienez.

65. artikulua

1. Estatu alderdiek zerbitzu egokiak izango dituzte, langileen eta horien familiakoen nazioarteko migrazioarekin zerikusia duten gaiei arreta egiteko. Horien eginkizunak izango dira, besteak beste:

a) Migrazio-mota horri buruzko politikak azaldu eta betearaztea;

b) Migrazio-mota horretan zein estatu alderdi interesduna izan eta estatu horietako agintari eskudunekin informazioa trukatzeko, kontsultak egitea eta lankidetzaz izatea;

c) Informazio egokia ematea, bereziki, enplegatzaileei, langileei eta horien erakundeei, migrazioari eta enpleguari buruzko politika, lege eta erregelamenduei buruz, beste estatu batzuekin migrazioaren inguruan hitzartutako akordioei buruz eta egoki diren beste gai batzuei buruz;

d) Informazio eta laguntza egokia ematea langile migratzaileei eta horien familiakoei, abiatzeari, bidaiari, ailegatzeari, egonaldiari, ordaindutako jarduerari, irteerari eta itzulerari buruzko baimen eta formalitateei nahiz konponketei dagokienez, bai eta enplegurako estatuko lan- eta bizitza-baldintzei, aduana-, diru- eta tributu-arauei eta egoki diren beste lege nahiz erregelamendu batzuei dagokienez ere.

2. Estatu alderdiek ahalbidetuko dute, bidezkoa denaren arabera, eskaintzea kontsuletxeetako zerbitzu egokiak eta langile migratzaileen eta horien familiakoen beharrian sozial, kultural eta beste mota batekoei arreta egiteko beharrezkoak diren beste zerbitzu batzuk.

66. artikulua

1. Artikulu honetako 2. paragrafoan xedatutakoa kontuan hartuta, beste estatu batean langileak kontratatzeke eragiketak egin ahal izango dituzte, soil-soilik:

a) Eragiketa horiek zein estatutan egin eta estatu horretako zerbitzu eta erakunde publikoek;

b) Enplegurako estatuko zerbitzu edo erakunde publikoek, estatu interesdunen arteko akordioa oinarri hartuta;

c) Bitariko edo alderdi anitzeko akordioaren ondorioz ezarritako erakunde batek.

2. Estatu horietako legerien eta egineren arabera estatu alderdietan ezartzen diren agintari publikoen baimena, onspena eta gainbegiratzea kontuan hartuta, ahalbidetu ahal izango da erakundeek, bihar-etziko enplegatzaileek edo horien izenean jarduten duten pertsonak ere eragiketa horiek egitea.

67. artikulua

1. Estatu alderdi interesdunak egoki denaren arabera lankidetzan arituko dira, langile migratzaileak eta horien familiakoak euren jatorrizko estatura modu antolatuan itzultzearen inguruan hartu beharreko neurriei dagokienez, horiek itzultzea erabakitzen dutenean, horien bizileku- edo enplegu-baimenaldia agortzen denean, edo horiek enplegurako estatuan egoera irregularrean daudenean.

2. Egoera erregularrean dauden langile migratzaileei eta horien familiakoei dagokienez, estatu alderdi interesdunak egoki denaren arabera lankidetzan arituko dira, estatu horien artean hitzartutako baldintzetan, horiek berrezartzeko baldintza ekonomiko egokiak susper daitezten.

68. artikulua

1. Estatu alderdiak, iraganbideko estatuak barne, elkarlanean arituko dira, egoera irregularrean dauden langile migratzaileen mugimenduak eta enplegua eragotzi edo ezabatzeko, halakoak legearen aurkakoak edo klandestinoak direnean. Estatu interesdun bakoitzaren jurisdikzioaren barruan, xede horrekin hartzen diren neurrien artean izango dira:

a) Emigrazioaren eta immigrazioaren inguruan engainuzko informazioa zabaltzearen aurkako neurri egokiak;

b) Langile migratzaileen eta horien familiakoen mugimenduak detektatu eta ezabatzeko neurriak, mugimendu horiek legearen aurkakoak edo klandestinoak direnean, eta mugimendu horiek antolatu nahiz zuzentzen dituzten edo horretarako laguntza eskaintzen duten pertsona, talde edo erakundeei zehapen eragingarriak ezartzeko neurriak;

c) Egoera irregularrean dauden langile migratzaileen edo horien familiakoen aurka indarkeria nahiz mehatxuak edo larderia erabiltzen direnean, halakoak erabiltzen dituzten pertsona, talde edo erakundeen aurka zehapen eragingarriak ezartzeko neurriak.

2. Enplegurako estatuek egoki eta eragingarri diren neurri guztiak hartuko dituzte, euren lurraldean egoera irregularrean dauden langile migratzaileak kontratatzea ezabatzeko, eta, bidezkoa bada, zehapenak ere ezarriko dizkiete langile horien enplegatzaileei. Neurri horiek ez diete kalterik egingo langile migratzaileek euren enplegua dela eta, enplegatzaileen aurrean dituzten eskubideei.

69. artikulua

1. Estatu alderdiek, euren lurraldean langile migratzaileak eta horien familiakoak egoera irregularrean dituztenean, neurri egokiak hartuko dituzte, egoera horrek jarraitu ez dezan ziurtatzeko.

2. Estatu alderdi interesdunek, legeria nazionalarekin eta bitariko edo alderdi anitzeko akordio aplikagarriekin bat etorriz, erabakitzen dutenean pertsona horien egoera erregularizatzea, behar bezala kontuan hartuko dira pertsona horiek kasuan kasuko estatuan sartzeko inguruabarrak, pertsona horien egonaldiaren iraupena enplegurako estatuetan eta egoki diren beste inguruabar batzuk, bereziki, pertsona horien familia-egoerarekin zerikusia dutenak.

70. artikulua

Estatu alderdiek neurriak hartu beharko dituzte, euren nazionalari begira hartutakoak baino kaltegarriagoak ez direnak, bermatzeko egoera erregularrean dauden langile migratzaileen eta horien familiakoen lan- eta bizitza-baldintzak bat datozela gaitasun-, segurtasun- eta osasun-arauekin, bai eta giza duintasunaren printzipioekin ere.

71. artikulua

1. Estatu alderdiek ahalbidetuko dute, beharrezkoa denean, langile migratzaileen edo horien familiakoen gorpuak jatorrizko estatura aberriratzea.

2. Langile migratzaile bat edo horren familiakoren bat hiltzen denean, kalte-ordainen inguruko gaiei dagokienez, estatu alderdiek, bidezkoa denaren arabera, laguntza eskainiko diete pertsona interesdunei, gai horiek lehenbailehen konpon daitezzen. Gai horiek konponduko dira aplikagarri den zuzenbide nazionala oinarri hartuta, konbentzio honetako xedapenekin eta kasuan kasuko bitariko nahiz alderdi anitzeko akordioekin bat etorriz.

VII. ZATIA. Konbentzioaren aplikazioa

72. artikulua

1. a) Konbentzio honen aplikazioa zaintzeko helburuarekin, langile migratzaile guztien eta horien familiakoen eskubideak babesteko Komitea ezarriko da (aurrerantzean «Komitea» deituko dena);

b) Komitea osatuko dute, konbentzio hau indarrean jartzen den unean, hamar adituk, eta konbentzioa berrogeita batgarren estatu alderdiari begira indarrean jarri ondoren, hamalau adituk, moral aldetik zintzotasun handikoak, inpartzialak eta trebetasun handikoak izango direnak konbentzio honen esparruan.

2. a) Komiteko kideak isilpeko botazio bidez hautatuko dira, estatu alderdiek izendatutako pertsonen zerrenda batetik. Behar bezala kontuan hartuko da geografiaren arabera banaketa orekatsua, jatorrizko estatuak nahiz enplegurako estatuak barne harturik, eta sistema juridiko nagusien ordezkariak. Estatu alderdi bakoitzak hautagai gisa pertsona bat proposatu ahal izango du bere nazionalen artean;

b) Kideak modu pertsonalean hautatuko dira, eta kideok modu pertsonalean jardungo dute euren eginkizunetan.

3. Hasierako hautatzea egingo da konbentzio hau zein datatan indarrean jarri eta, gehienez ere, data horretatik sei hilabete igaro ondoren, eta gerogarreneko hauteskundeak bi urterik behin egingo dira. Hauteskunde bakoitza zein datatan egin eta, gutxienez, data hori baino lau hilabete lehenago, Nazio Batuetako idazkari nagusiak gutun bat bidaliko die estatu alderdi guztiei, euren hautagai-zerrendak bi hilabeteko epean aurkezteko gonbita eginez. Idazkari nagusiak zerrenda prestatuko du, hurrenkera alfabetikoaren arabera, hautagai guztiekin, hautagai horiek izendatu dituzten estatu alderdiak zehaztuz, eta estatu alderdiei bidaliko die zerrenda hori, gehienez ere, kasuan kasuko hautaketa egin baino hilabete lehenago, hautagaien ohar biografikoekin batera.

4. Komiteko kideak estatu alderdien bilera batean izendatuko dira; bilera horren deialdia idazkari nagusiak egingo du, eta bilera Nazio Batuen egoitzan egingo da. Bilera horretarako estatu alderdien bi herenak osatuko du quoruma, eta Komiterako hautatutzat joko dira boto gehien lortzeaz gain, bilerako estatu parte-hartzaile eta boto-emaitzen ordezkarien artean botoen erabateko gehiengoa lortzen duten hautagaiak.

5.

a) Komiteko kideak lau urterako hautatuko dira. Hala ere, lehenengo hautaketan hautatutako bost kideren agintaldia bi urte igaro ondoren amaituko da; lehenengo hautaketa egin eta berehala, estatu alderdien bilerako lehendakariak zozketa bidez izendatuko ditu bost kide horiek;

b) Komiteko osterantzeko lau kideen hautaketa egingo da artikuluko honetako 2, 3 eta 4. paragrafoetan xedatutakoaren arabera, konbentzioa estatu alderdietarik berrogeita batgarrenari begira indarrean jarri eta berehala. Osterantzeko hautagaien artean

hautatutako bi kideren agintaldia bi urte igaro ondoren amaituko da; estatu alderdien bilerako lehendakariak zozketa bidez izendatuko ditu kide horiek;

c) Komiteko kideak berriro hautatu ahal izango dira, baldin eta euren hautagai-zerrenda berriro aurkezten bada.

6. Komiteko kideren bat hiltzen bada edo kideren batek postuari uko egiten badio edo adierazten badu, beste arrazoi baten ondorioz, ezin duela Komitean jarraitu bere eginkizunak gauzatzen, hautagai gisa aditu hori aurkeztu zuen estatu alderdiak bere nazionalen artean izendatuko du beste aditu bat, agintaldia bukatu arte geratzen den denbora-tartea bete dezan. Izendapen berria Komiteak onetsi beharko du.

7. Komitearen eginkizunak eragingarriak izan daitezen, Nazio Batuetako idazkari nagusiak behar adina langile eta zerbitzu ezarriko ditu.

8. Komiteko kideek zerbitzu-sariak jasoko dituzte Nazio Batuetako baliabideen kontura, Biltzar Orokorra erabakitako modu eta baldintzetan.

9. Komiteko kideek eskubidea izango dute, Nazio Batuentzako egitekoak gauzatzen dituzten adituen erraztasun, onurabide eta ukiezintasunak eskuratzeko, halakoak izango direla Nazio Batuetako Onurabideen eta Ukiezintasunen Konbentzioko kasuan kasuko ataletan ezarritakoak.

73. artikulua

1. Estatu alderdiek Nazio Batuetako idazkari nagusiari txostena aurkeztuko diote, Komiteak azter dezan; txosten hori izango da konbentzio honetako xedapenak eragingarri egiteko hartu dituzten legegintza-, epaiketa- eta administrazio-neurriei edo bestelako neurriei buruzkoa. Bada, txosten hori aurkeztuko dute:

a) Kasuan kasuko estatuarentzako konbentzioa indarrean jarri eta urtebetera;

b) Osterantzekoan, bost urterik behin, eta Komiteak hala eskatzen duen bakoitzean.

2. Artikulu honekin bat etorritik aurkeztutako txostenetan aipatuko dira, halaber, konbentzio hau ez aplikatzeko orduan eragina duten inguruabar eta zailtasunak, kasuaren arabera, eta informazioa emango da kasuan kasuko estatu alderdian gauzatzen diren migrazio-fluxuen ezaugarriei buruz.

3. Komiteak ezarriko ditu txostenen edukiari begira aplikatu beharreko gainerako jarraibideak.

4. Estatu alderdiek euren herrialdeetan zabal hedatuko dituzte txostenak jendaurrean.

74. artikulua

1. Komiteak aztertuko ditu estatu alderdi bakoitzak aurkeztutako txostenak, eta egokitzen dituen oharrak bidaliko dizkio estatu alderdi interesdunari. Estatu alderdi horrek Komiteari iruzkinak aurkeztu ahal izango dizkio, Komiteak artikulua

honen arabera egindako edozein oharren gainean. Txosten horiek aztertzean, Komiteak estatu alderdiei eskatu ahal izango die informazio osagarria aurkeztea.

2. Nazio Batuetako idazkari nagusiak, Komitearen bilkura-aldi arrunt bakoitza hasi baino lehenago, behar besteko aurrerapenarekin, Lanaren Nazioarteko Bulegoko zuzendari nagusiari bidaliko dizkio estatu alderdi interesdunek aurkeztutako txostenen kopiak eta txosten horiek aztertzeko egoki den informazioa, Bulegoak Komiteari eman ahal izateko konbentzio honetako gaien inguruan dituen jakitate espezializatuak, betiere, gai horiek biltzen badira Lanaren Nazioarteko Erakundearen eskumen-esparrura. Komiteak bere eztabaidetan aztertuko ditu Bulegoak ahalbidetu ahal dizkion iruzkin eta materialak.

3. Nazio Batuetako idazkari nagusiak, halaber, Komitea kontsultatu ondoren, beste erakunde espezializatu batzuei, bai eta gobernuen arteko erakundeei ere, bidali ahal izango dizkie txosten horien zatien kopiak, halakoak bere eskumenekoak direnean.

4. Komiteak gonbita egin ahal izango die Nazio Batuetako erakunde espezializatuak eta erakundeei, bai eta gobernuen arteko erakundeei eta gainerako organo interesdunei ere, idatzizko informazioa aurkezteko, konbentzio honetako gaien inguruan, halakoak euren jardura-esparrura biltzen direnean, informazio hori Komiteak azter dezan.

5. Komiteak Lanaren Nazioarteko Bulegoari ordezkariak izendatzeko gonbita egingo dio, horiek bere bilkuretan parte har dezaten, kontsulta-izaerarekin.

6. Komiteak gonbita egin ahal izango die Nazio Batuetako beste erakunde espezializatu eta organo batzuetako ordezkariak, bai eta gobernuen arteko erakundeetako ordezkariak ere, bilkuretan izan daitezten eta eurek esan beharrekoa entzun dadin, euren eskumen-esparruko gaiak aztertzen direnean.

7. Komiteak urteko txostena aurkeztuko dio Nazio Batuetako Biltzar Orokorrari konbentzio honen aplikazioari buruz; txosten horretan azalduko dira Komitearen iritzia eta gomendioak, oinarri harturik, bereziki, estatu alderdiek egindako txostenen azterketa eta estatu alderdi horiek aurkeztutako oharak.

8. Nazio Batuetako idazkari nagusiak Komitearen urteko txostenak bidaliko dizkie konbentzio honetako estatu alderdiei, Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari, Nazio Batuetako Gisa Eskubideen Batzordeari, Lanaren Nazioarteko Bulegoko zuzendari nagusiari eta beste erakunde egoki batzuei.

75. artikulua

1. Komiteak onetsiko du bere araudia.

2. Komiteak hautatuko du bere mahaia, bi urterako.

3. Komitea, orokorrean, urtero bilduko da.

4. Komitearen bilerak, orokorrean, Nazio Batuetako egoitzan egingo dira.

76. artikulua

1. Artikulu honen arabera, konbentzio honetako estatu alderdi orok edozein unetan adierazi ahal izango du Komitearen eskumena onartzen duela, estatu alderdi baten komunikazioak jaso eta aztertzeko, estatu horrek komunikazio horien bidez alegatzen duenean beste estatu alderdi batek konbentzioak ezarritako betebeharrak ez dituela betetzen. Artikulu honekin bat etorritik aurkeztutako komunikazioak soil-soilik jaso eta aztertu ahal izango dira estatu alderdi batek aurkezten baditu, eta estatu alderdi horrek adierazi badu Komitearen eskumena aitortzen duela berari begira. Komiteak ez du inolako komunikaziorik jasoko, komunikazio hori denean adierazpen hori egin ez duen estatu alderdi bati buruzkoa. Artikulu honekin bat etorritik jasotzen diren komunikazioek hurrengo prozedura bete beharko dute:

a) Konbentzio honetako estatu alderdi batek uste badu beste estatu alderdi batek ez dituela betetzen konbentzio honek eratorritako betebeharrak, gai hori estatu horren esku utzi ahal izango du, idatzizko komunikazioaren bidez. Estatu alderdiak Komitea ere informatu ahal izango du gai horren inguruan. Hiru hilabeteko epean, komunikazioa jasotzen denetik zenbatzen hasita, estatu jasotzaileak komunikazioa bidali zion estatuari azalpena emango dio, edo idatzizko beste agerpenen bat, arazoa argituz, eta, ahal den eta egoki den neurrian, aipatuz gai horren inguruan baliatu diren, ebazteke dauden edo existitzen diren barne prozedurak eta errekurtsioak;

b) Estatu jasotzaileak lehenengo komunikazioa jasotzen duen unetik zenbatzen hasita, sei hilabeteko epean, arazoa ez bada konpontzen bi estatu alderdi interesdunak asez, eurentariko edonork utzi ahal izango du arazoa Komitearen esku, Komiteari eta beste estatuari zuzendutako jakinarazpenaren bidez;

c) Komiteak bere esku utzi den arazoa aztertuko du, egiaztatu ondoren gai horren inguruko barne errekurtsio guztiak baliatu eta agortu direla, nazioarteko zuzenbidean orokorrean aitortu diren printzipioekin bat etorritik. Arau hori ez da aplikatuko, Komitearen ustez errekurtsio horien izapideak justifikaziorik gabe luzatzen direnean;

d) Paragrafo honetako c) idatz-zatian xedatutakoa kontuan hartuz, Komiteak bere jardunbide egokiak estatu alderdi interesdunen esku utziko ditu, arazoa adiskidetasunez konpondu ahal izateko, konbentzio honetan ezarritako betebeharren errespetua oinarritzat hartuz;

e) Komiteak bilkura pribatuak egingo ditu, artikulu honen araberrako komunikazioak aztertzen dituen;

f) Paragrafo honetako b) idatz-zatiarekin bat etorritik Komitearen esku uzten diren kasu guztietan, Komiteak b) idatz-zatiak aipatu estatu alderdi interesdunei eskatu ahal izango die beste edozein informazio egoki ematea;

g) Bi estatu alderdi interesdunek, paragrafo honetako b) idatz-zatian aipatutakoaren arabera, eskubidea izango dute ordezkaturik egoteko, Komiteak arazoa aztertzen duenean, eta adierazpenak egiteko ahoz nahiz idatziz;

h) Komiteak, paragrafo honetako b) idatz-zatiaren arabera jakinarazpena jaso eta hamabi hilabeteko epean, txosten bat aurkeztuko du, ondoren azaldutakoarekin bat etorriz:

i) Paragrafo honetako d) idatz-zatian xedatutakoaren arabera konponbidea lortu bada, Komitearen txostena mugatuko da labur azaltzera egitateak eta lortutako konponbidea;

ii) Aurreko d) idatz-zatian xedatutakoaren arabera konponbidea lortu ez bada, Komiteak txostenean azalduko ditu estatu alderdi interesdunen arteko arazoari buruzko egitate garrantzitsuak. Txostenari erantsiko zaizkio estatu alderdi interesdunek idatziz egindako adierazpenak eta ahoz egindako adierazpenen zerrenda. Halaber, Komiteak estatu alderdi interesdunei bakarrik bidali ahal izango die edozein ohar, bi-bien arteko arazoarentzat egokitzat jotzen badu hori.

Edozein kasutan, txostena estatu alderdi interesdunei bidaliko zaie.

2. Artikulu honetako xedapenak indarrean jarriko dira konbentzio honetako hamar estatu alderdik artikulu honetako 1. paragrafoaren arabera adierazpena egiten dutenean.

Estatu alderdiek adierazpen horiek gordailutuko dituzte Nazio Batuetako idazkari nagusiaren esku utzita; idazkari horrek adierazpen horien kopia bidaliko die gainerako estatu alderdiei.

Adierazpen oro edozein unetan kendu ahal izango da, idazkari nagusiari zuzendutako jakinarazpenaren bidez. Adierazpen horiek kentzea ez da oztopo izango, artikulu honen ondorioz zein komunikazio eman eta komunikazio horretako edozein gai azter dadin; artikulu honen ondorioz ez da jasoko estatu alderdien komunikazio berririk, idazkari nagusiak adierazpena kentzeko jakinarazpena jaso eta gero, estatu alderdi interesdunak adierazpen berria egin duenean izan ezik.

77. artikulua

1. Konbentzio honetako estatu alderdi orok edozein unetan adierazi ahal izango du, artikulu honekin bat etorriz, Komitearen eskumena aitortzen duela, bere jurisdikzioko pertsonak bidalitako komunikazioak, edo pertsona horien izenean bidalitakoak, jaso eta aztertzeko, pertsona horiek alegatzen dutenean estatu alderdi horrek urratu dituela konbentzio honek aitortzen dizkien banakako eskubideak. Komiteak ez du inolako komunikaziorik jasoko, komunikazio hori adierazpen hori egin ez duen estatu alderdi bati buruzkoa denean.

2. Komiteak onartu ezinezkotzat joko du artikulu honekin bat etorriz jasotzen duen komunikazio anonimo oro, edo, bere ustez, aurkeztuz gero, eskubideaz abusatzea ekarriko lukeen komunikazio oro, edo konbentzio honen xedapenekin bateraezina den komunikazio oro.

3. Komiteak ez du aztertuko pertsona batek artikulu honekin bat etorriz aurkeztutako komunikaziorik, harik eta egiaztatu arte:

a) Arazo bera ez dela aztertu edo ez dela aribideko azterketa baten xede, nazioarteko beste ikerketa-prozedura edo konponbide baten arabera;

b) Pertsonak barne jurisdikzioan balia daitezkeen errekurtsio guztiak agortu dituela; arau hori ez da aplikatuko, Komitearen ustez, errekurtsioen izapideak justifikaziorik gabe luzatzen direnean edo ziurra ez denean pertsona horri babes eragingarria emango zaionik.

4. Artikulu honetako 2. paragrafoan xedatutakoari kalterik egin gabe, Komiteak artikulu honekin bat etorritik jasotzen dituen komunikazioak utziko ditu konbentzio honetako zein estatu alderdiren aurka alegatu konbentzioaren xedapen bat urratu duela eta estatu alderdi horren esku, betiere, estatu horrek 1. paragrafoaren arabera adierazpena egin badu. Sei hilabeteko epean, estatu jasotzaileak Komiteari idatziz emango dio arazoa argitzeko eta, hala denean, estatu horrek hartu duen neurri zuzenaren berri emateko azalpena edo beste agerpenen bat.

5. Komiteak jasotako komunikazioak aztertuko ditu artikulu honekin bat etorritik, kasuan kasuko pertsonak, edo horren izenean jarduten duenak, eta estatu alderdi interesdunak aurkeztutako informazio guztia aintzat hartuta.

6. Komiteak bilkura pribatuak egingo ditu, artikulu honekin bat datozen komunikazioak aztertzen dituenean.

7. Komiteak bere iritzia komunikatuko dizkie kasuan kasuko estatu alderdiari eta komunikazioa aurkeztu duen pertsonari.

8. Artikulu honetako xedapenak indarrean jarriko dira konbentzio honetako hamar estatu alderdik artikulu honetako 1. paragrafoak aipatu adierazpenak egin ondoren. Estatu alderdiek adierazpen horiek gordailutuko dituzte Nazio Batuetako idazkari nagusiaren esku utzita; idazkari horrek adierazpen horien kopia bidaliko die gainerako estatu alderdiei. Adierazpen oro edozein unetan kendu ahal izango da, idazkari nagusiari zuzendutako jakinarazpenaren bidez. Adierazpen horiek kentzea ez da oztopo izango, artikulu honen ondorioz zein komunikazio eman eta komunikazio horretako edozein gai azter dadin; artikulu honen ondorioz ez da jasoko pertsona baten komunikazio berririk edo pertsona horren izenean egindako komunikazio berririk, idazkari nagusiak adierazpena kentzeko jakinarazpena jaso eta gero, estatu alderdi interesdunak adierazpen berria egin duenean izan ezik.

78. artikulua

Konbentzio honetako 76. artikuluko xedapenak aplikatuko dira kalterik egin gabe konbentzio honen esparruko gatazkak edo salaketak konpontzeko edozein prozedurari, halakoak direnean Nazio Batuak eta erakunde espezializatuak eratzeko tresnetan edo horiek onetsitako hitzarmenetan jasotakoak, eta xedapen horiek ez dute eragotziko estatu alderdiek beste prozedura batzuetara jotzea, gatazka bat konpon dadin euren artean indarrean dauden nazioarteko hitzarmenekin bat etorritik.

VIII. ZATIA. Xedapen orokorrak

79. artikulua

Konbentzio honetako xedapenek ez dute ukituko estatu alderdi bakoitzak duen eskubidea, langile migratzaileak eta horien familiakoak onartzeko irizpideak ezartzeari dagokionez. Euren legezko egoerarekin eta langile migratzaile eta horien familiako izateagatik ematen zaien tratuarekin zerikusia duten beste gai batzuetan, estatu alderdiek kontuan hartu beharko dituzte konbentzio honetan ezarritako mugak.

80. artikulua

Konbentzio honetan xedatutakoa ezin da interpretatu kalte egiteko moduan Nazio Batuen Gutuneko xedapenei edo erakunde espezializatuen konstituzioetako xedapenei, halakoetan definitzen direnean Nazio Batuetako organo desberdinen eta erakunde espezializatuen kasuan kasuko ardurak konbentzio honetako gaietara dagokienez.

81. artikulua

1. Konbentzio honetako xedapenek ez dituzte ukituko langile migratzaileei eta horien familiakoei hurrengo araberako aitortzen zaizkien eskubide edo askatasun mesedegarriagoak:

a) Estatu alderdi baten zuzenbidea edo eginera; edo

b) Bitariko edo alderdi anitzeko tratatuak, halakoak indarrean daudenean estatu alderdi interesdunari begira.

2. Konbentzio honetako xedapenak ez dira interpretatuko eskubideren bat emateko estatu, talde edo banakako bati, eskubide horren helburua denean konbentzio honetan zein eskubide edo askatasun aitortu eta horietako edozeini kalte egin diezaioketen jarduerari ekitea edo egintzak gauzatzea.

82. artikulua

Ezin izango zaie ukorik egin konbentzio honetan langile migratzaileei eta horien familiakoei begira jasotako eskubideei. Ez da onartuko langile migratzaileei edo horien familiakoei inolako presio-motarik egitea, uko egin diezaioten aipatu eskubideetarik edozeini edo halako eskubideetakoren batez gabetu daitezten. Kontratu bidez ezin dira ezeztatu konbentzio honetan aitortutako eskubideak. Estatu alderdiek neurri egokiak hartuko dituzte, printzipio horiek errespetatzen direla ziurtatzeko.

83. artikulua

Konbentzio honetako estatu alderdi bakoitzak konpromisoa hartzen du hurrengoak bermatzeko:

a) Konbentzio honetan aitortutako eskubideak edo askatasunak urratzen direnean, halakoak urratuak dituzten pertsonen konponketa eragingarria lortu ahal izatea, nahiz eta urratze hori gauzatu eginkizun ofizialak betetzen ziharduten pertsonen;

b) Epaiketa-, administrazio- edo legegintza-agintari eskudunak, edo estatuko sistema juridikoko beste edozein agintari eskudunek, erabakia hartzea halako konponketa nahi duen pertsona ororen demandaren bidez kotasunari buruz, eta konponketa bide judiziala baliatuta lortzeko aukerak areagotzea;

c) Agintari eskudunek betetzea konponketa bidez kotzat jo duen erabaki oro.

84. artikulua

Estatu alderdietako bakoitzak konpromisoa hartzen du, konbentzio honetako xedapenak aplikatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzeko, legegintzazkoak edo beste mota batekoak.

IX. ZATIA. Azken xedapenak

85. artikulua

Nazio Batuetako idazkari nagusia izango da konbentzio honen gordailuzaina.

86. artikulua

1. Konbentzio hau estatu guztiek sinatu ahal izango dute. Konbentzio hau berretsi beharko da.

2. Konbentzio honi estatu guztiak atxiki ahal izango zaizkio.

3. Berreste- edo atxikipen-agiriak Nazio Batuetako idazkari nagusiaren esku utziko dira hark gordailutu ditzan.

87. artikulua

1. Konbentzio hau indarrean jarriko da, berreste- edo atxikipen-agirietatik hogeigarrena zein datatan gordailutu, eta hurrengo hiru hilabeteak igaro ondoren, jarraikako hilabetearen lehenengo egunean.

2. Konbentzioa indarrean jarri ondoren hori berresten duen edo horri atxikitzen zaion estatu orori dagokionez, konbentzioa indarrean jarriko da, estatu horrek berreste- edo atxikipen-agiria zein datatan gordailutu, eta hurrengo hiru hilabeteak igaro ondoren, jarraikako hilabetearen lehenengo egunean.

88. artikulua

Konbentzio hau berresten duten edo horri atxikitzen zaien estatuak ezin dute baztertu horren edozein zatiren aplikazioa, eta ezin dute konbentzioa aplikatu gabe utzi, 3. artikuluan xedatutakoa gorabehera, langile migratzaileen kategorietarik edozeini begira.

89. artikulua

1. Estatu alderdi orok konbentzio hau salatu ahal izango du, estatu horri begira konbentzioa zein datatan indarrean jarri eta data horretatik bost urte igaro ondoren, Nazio Batuetako idazkari nagusiari idatziz zuzendutako komunikazioaren bidez.

2. Salaketa eragingarri egingo da, Nazio Batuetako idazkari nagusiak zein datatan jaso komunikazioa eta hurrengo hamabi hilabeteko epea amaitu ondoren, jarraikako hilabetearen lehenengo egunean.

3. Salaketak ez du estatu alderdia askatuko horrek konbentzio honen ondorioz bere gain hartu dituen betebeharratik, salaketa eragingarri egin aurretik gertatutako egite edo ez-egiteei dagokienez; halaber, salaketak ez du eragotziko salaketa eragingarri egin aurretik Komitearen esku utzitako edozein arazoren azterketak aurrera jarraitzea.

4. Estatu alderdi baten salaketa zein datatan egin eragingarri eta data horretatik aurrera Komiteak ez du azterketarik hasiko estatu horren inguruko arazo berriei dagokienez.

90. artikulua

1. Konbentzio hau indarrean jarri zenetik bost urte igaro ondoren, estatu alderdietarik edonork konbentzioa zuzentzeko eskabidea egin ahal izango du, Nazio Batuetako idazkari nagusiari idatziz zuzendutako komunikazioaren bidez. Ondoren, proposatutako zuzenketak idazkari nagusiak komunikatuko dizkie estatu alderdiei, eta horiei eskatuko die jakinarazi diezaiotela estatu alderdien Konferentziarako deialdia egitea nahi duten, proposamenak aztertu eta horien inguruko botazioa egiteko. Komunikazio hori zein datatan egin eta data horren ondorengo lau hilabeteetan estatu alderdietarik, gutxienez, herena konferentzia hori egitearen alde badago, idazkari nagusiak konferentziarako deialdia egingo du, Nazio Batuen babespean. Konferentzian izan eta boto-emaile diren estatu alderdien gehiengoarekin zein zuzenketa onetsi eta Nazio Batuen Biltzar Orokorrari aurkeztuko zaizkio zuzenketok onespenerako.

2. Zuzenketa horiek indarrean jarriko dira, Nazio Batuetako Biltzar Okorrrak onetsi eta konbentzio honetako estatu alderdietarik bi hereneko gehiengoak onartzen dituzenean, euren konstituzio-prozedurekin bat etorritik.

3. Zuzenketa horiek, indarrean jartzen direnean, nahitaezkoak izango dira halakoak onartu dituzten estatu alderdientzako; gainerako estatu alderdiek, ordea, konbentzio honetako xedapenak eta aldeztu aurretik eurek onartutako zuzenketak betetzen jarraituko dute.

91. artikulua

1. Estatuak sinadura-, berrespen- edo atxikipen-unean egindako erreserben testua Nazio Batuetako idazkari nagusiak jasoko du, eta testu hori estatu guztiei komunikatuko die.

2. Ez da onartuko konbentzioaren xedearekin eta asmoarekin bateraezina den erreserbarik.

3. Erreserba oro edozein unetan kendu ahal izango da, Nazio Batuetako idazkari nagusiari ondore horietarako jakinarazpena eginez; idazkari nagusiak horren berri emango die estatu guztiei. Jakinarazpen horrek ondoreak sortuko ditu berori jasotzeko datan.

92. artikulua

1. Konbentzioaren interpretazioari edo aplikazioari dagokionez, estatu alderdi bi edo gehiagoren artean sortzen den eztabaida oro tartekaritzaren mende utziko da, euretako baten batek hala eskatuta, betiere, eztabaida negoziazio bidez konpondu ez bada. Tartekaritza-eskabidea aurkeztu eta sei hilabeteko epean alderdiak ez badira ados jartzen tartekaritzaren antolaketari buruz, alderdietarik edonork utzi ahal izango du eztabaida Nazioarteko Justizia Gortearen esku, Gortearen estatutuarekin bat datorren eskabidea aurkeztuta.

2. Estatu alderdi orok, konbentzio hau sinatu nahiz berresteko unean edo horri atxikitzeko unean, adierazi ahal izango du artikulua honetako 1. paragrafoak ez duela berau behartzen. Paragrafo horrek gainerako estatu alderdiak ez ditu behartuko erreserba hori egin duten estatuei begira.

3. Artikulu honetako 2. paragrafoko erreserba egin duen estatu alderdi orok edozein unetan kendu ahal izango du hori, Nazio Batuetako idazkari nagusiari zuzendutako jakinarazpenaren bidez.

93. artikulua

1. Konbentzio hau, Nazio Batuetako idazkari nagusiaren esku utziko da, hark gordailutu dezan; berebat, konbentzioaren testuak kautoak izango dira, arabiarrez, txinatarrez, espainolez, frantsesez, ingelesez eta errusieraz.

2. Nazio Batuetako idazkari nagusiak konbentzio honen kopia ziurtatuak bidaliko dizkie estatu guztiei.

HORI GUZTIORI AITORTUZ, behean sinatzen duten botereguztidunek, euren gobernuak behar bezala baimenduta daudela, konbentzio hau sinatzen dute.